

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Iñaki Yerobi,
Tesako zuzendaria /8

GIZARTEA
Atzerritarrek
agur /9

LEINTZ GATZAGA
Toki Eder elkarteko
batzar orokorra /10



ITURRIONDO

Euskal baso txikia herrian

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 23
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22
DOMEKA, 24
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzalea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domekak: 11:00, 12:00
Zapatuak: 19:30
Lanegunak: 19:00

SANTA RITA
Domekak: 09:00
Zapatuak: 18:30
Lanegunak : 08:00

BASERRI AUZOETAN: ARIENTZAN
Domekak: 11:30

MENDIOLA
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

ARKARAZO
Domekak: 12:30

OHARRAK

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDEKO KALE BILKURA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko kale bilkura egingo du datorren zapatuan, hilaren 23an, 11:00etan, Mitarte plazan Correos-ek duen egoitzaren parean.

PANPINA IKASTAROA

Aretxabaletako Udaleko Kultura Sailak panpinak egiteko ikastaroa antolatu gura du. Interesatuok joan zaitezte lehenbailehen kultura etxera izena ematera edo deitu 943 71 10 27 telefono zenbakira.

2002. URTEKO UDALEKUETAN BEGIRALE IZATEKO IZENEMATE EPEA ZABALIK DAGO

Kultura Sailak aditzera eman gura du 2002. urteko udaleku irekietan begirale gisa lan egin gura duenak izena eman dezakeela dagoeneko kultura etxean. Izena emateko epea apirilaren 15era arte egongo da zabalik. Horrela, begirale izan gura duenak curriculum eraman beharko du kultura etxera. Posta elektronikoz bidez ere egin daiteke izenematea, kultura@aretxabaleta.net helbidera mezua bidalita. Informazio gehiago gura duenak dei dezala 943 71 10 27 telefonora edo jo dezala, zuzenean, Kultura etxera.

LORAMENDIRENAGENDA

ARGAZKI ZAHAR BILA

Loramendiren laguntzarekin, Debagoieneko euskara elkarteek 2003. urteko Debaguneko egutegia kaleratu nahi dute. Horretarako, Loramendik argazki zaharrak eskuratu nahi ditu. Hortaz, badakizue, etxean duzuen argazki zahar hori Debaguneko egutegian azaltzea gura baduzu, eraman ezazue Loramendik udaletxe zaharrean duen egoitzara.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

Herriko intsumiso talde bat epaitu zuten

Ondoko argazkia Donostian dago aterata. Izan ere, 1994. urteko martxoan ekin ziren herriko gazte intsumiso batzuk epaitzen. Soldadutzari uko egin zioten herriko lehenengo gazteak izan ziren epaitutakoak. Ondorioz, jende ugari joan zen Donostiara, haiei elkartasuna adierazteko.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Trontzua"

Okela edo arrain zati eder ete lodia.
-Trontzoik ederrena beretako artu zeban da neri gizenak eta girixak besteik ez.



ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Beñat Illarramendi
14an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ESKORIATZA
Iker Hernández
19an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko senideen partetik.



ESKORIATZA
Irati Armendariz
20an, 6 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko partetik.



ARETXABALETA
Jose Benito Ayastuy
21ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik!



ESKORIATZA
Iker Garasa
24an, 21 urte. Zorionak eta muxu bat, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETA
Amaia Irure
24an, urtebete. Zorionak eta muxu bat etxeko txikienari.



ARETXABALETA
Julen Arriola
25ean, 4 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

Zorionak denoi !!!

Foto

Urkiola

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5
20550 ARETXABALETA
TELEF 943 79 39 20

* ESTUDIOAK
* EZKONTZAK
* JAUNARTZEAK
* ENMARKAZIOAK
* DIGITAL LANAK
* KAMARAK

Beti karretean edo albuma dohanik !!



Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

IBARRA
estankoa




PRENTSA ETA
IKASMATERIALA
Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA




Aholkularitza
- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26


ATREBENTZIAEZPADA/ PPK presuen alde egitten dauen Udalak desegin gure dittu. Ze uste dozu?



JON ANTIA
Langillie



ESTEBAN GORROÑO
Jubilau



JONATAN JIMBERT
Langillie eta ikaslie



NATI ABASOLO
Langillie



IZASKUN ROMARATEZABALA
Langillie



MERTXE LÓPEZ
Langillie

Norberak bere posiziona-mentue izeteko aukerie dauko; horregaittik gagoz demokrazian, ezta? Hemen, adibidez, herri-ritarren botuekin dagoz Batasunakuek udalien.

Gure dauenien etorri dai-xiela, etxoitten egongo ga-rra eurei aurre egitteko. Ondiokan ez dauket asmo-rik zerure joateko, eta burruka egitteko gertu naguela esango neuskie.


Ez jat bat be bidezkuie pen-tsetan Euskal Herriko udal-batzak desegitteko lege hori atara gure izetie PPK. Nor-berak pentsetan dauena defendiduteko eskubidie daukola uste dot.

Erabaki horrekin zer kon-ponduko daue, ba? Nik ez dutzet bururik ez hankarik ikusten kontu horri. Berba egindde konpondu biher dala eta, holako erabaki-xekin nora goiez baiñe?

Lehenengo, euren buruei begittu daixiela: hor dago Fraga, hor dago Galindo asuntue... Hori konponke-tan dauenien, hasi daitte-zela beste batzuekin, baiñe lehenengo ejenplue emun.

Txarrikerixa galanta da. Presuen familixek laguntasune biher daue. Ekarri daixiela presuek hona. Batasuna alderdi politikue da, eta ez dauenak gure ez daixela botau.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ABIADURA MURRIZTU Automobilen abiadura murrizteko bandak jarri ditu Udalak Araba ibilbidean. Gidari bat baino gehiago keXu izango da, baina oinezkook eskertu egingo dugu, batez ere, errepidea gurutzatzeko orduan. Orain, kale horretan dauen industrialdeko pabilioietara jotzeko zebrabide alboko espaloia jais-tea baino ez da falta. Hurrengoan izango ote da. / MIRARI ALTUBE

ASTEKODATUA

2.800

LIBURUXKA BANATUKO DIRA, HERRIARI BURUZKOAK

Aretxabaletako eta ingurueta-ko berri ematen duten 2.800 libu-ruxka kaleratuko dituzte egun-tan. Azkena 1997an kaleratu zuten, eta 2002. urteko liburux-kak informazio berritua dakar.

BESTEKEESANA

“ Ni gaztetatik parroki munduan ibilia naiz, erlijiosoen ikastetxe-an ikasi nuen eta fede murduarekin irrika tira bat neukan. Serioago planteatzen 16 urterekin edo hasi nintzen, nire bizitza zer izan zitekeen, nondik joan zitekeen... aukera asko daude eta denak baloratzen dituzu. 23 urtera iritsi nintzen eta orduan esaten duzu, adin honetan zer egin dezaket? Aukera guztien artetik niretzat zein da egokiena, zein da gehien betetzen nauena? Eta ikusi nuen moja izan zitekeela.

Gure bizitza gehiago da konten-plaziozko bizitza. Gure eginkizun na-gusia jainkoa bilatzea da, otoitzaren bidez, isiltasunaren bidez, elkartean, bakardadean, baita barruan ere. Baina ez du esan nahi gure alderdi-rik garrantzitsuena klausura denik.

ARANTXA JAKA
Eth-1/02-03-19

HERRITARRENBERBAK/ Felis Beltran de Heredia



Bide gorria, ala bide kaka?

San Jose egunak udabe-rrri egun goxoa ekarri zigun eta zer hobeto eguzkipean gure herri inguruko txoko polit askoak bisitatzea baino. Egunetik egunera hobeto gertatua daukagu herria paseatzeko, horretaz behintzat ezin gara kexatu.

Kexatzekoa dena, herritar batzuen, eta ez dira gutxi, ardura falta da. Ez nuke behin eta berriz gai berari bueltarik eman gura, baina ARE-TXAGAZETA, formatu berria dela eta edo banaketa dela eta ez da irakurtzen, edo irakurtzen bada, etxeko abere horien jabeak gorra dira edo bestela motzak. Asper-asper eginda gaude gure lorategi gehientsuenak, denak ez esatearren, txakur kakez beteta ikusten. Hala ere iritzi hau idaztera, eta ez aurrez pentsatu-takoa, San Jose egunean ikusitakoak animatu ninduen.

Bainuetxe-ko industrialde berriaren ertzean bide gorria jarri dute, bueno, bide gorria

edo “bide kaka”. Oraindik guztiz bukatu barik dago aipatutako bidea, baina Copre-ci albotik hasi eta bukaeran dagoen zubiraino txakur kaka artean joan ginen, nazka ematen zuten txakur kaka artean. Inguruan hiru txakur zeramatzen ehiztari itxurako

gizon batekin gurutzatu ginen. Txakurretako batek, bide gorrian kaka gutxi zeudela eta, beste bat gaineratu zuen. Hori, gainera, jabea kaka egileari begira zegoela.

Zela onar ditza-kegu jokaera horiek, hori da bizitza

kalitatea? Ezin dezake inork ezer egin gure herria gutxiago zikin dadin? Arazoa ez da Aretxabaletakoa bakarrik, Arrasa-ten, Gasteizen, Donostian... gauza bera gertatzen da, eta herritarrek gainera, herritar guztiak, kexa dira. Zer egin dai-teke? Txakurrek egiten duten antzera gizakume bat lorategi edo kale bazter batean kaka egi-nean hasiko balitz aurpegi txar-rearekin begiratuko liokete gai-nontzeko lagunek, ez da hala?

“Asper-asper eginda gaude gure lorategi gehientsuenak, denak ez esatearren, txakur kakez beteta ikusten”

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /4	ASTEAN BEHIN /5	KIROLAK /6
Iturriondo parkea	Akordeoi Orkestra	Eneko Pérez
Mendiolara bidean dagoen Iturriondo parkea jatorrizko euskal basoaren irudi txiki bat da.	Pragara bidean da Akordeoi Orkestra. Ondorengo egunotan, Europako Txapelketan hartuko du parte.	Hemeretzi urte bete berri ditu, eta amateur mailako Urnietatel txirrin-dulari taldean dihardu.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabarter

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Udaberriko kontuak

Udaberria iritsi zai-gu eta gezurra badi- rudi ere, aurten- goan eguraldia eta urta- roa bat etorri dira. Udabe- rriko eguraldia izan dugu asteen zehar, eta hemen- dik aurrera ere eskertuko genuke antzekoa izatea.

Hemen behintzat ezin gara kexatu, Praga aldera joan direnak, berriz, ez dakigu zein eguraldi izango duten. Akordeoia hartuta Europaren bihotzean daude herriko akordeoilariak. Txapelke- ta jokatu eta bitartean hiri zoragarri hori ezagu- tzeko aukera izango dute. Zeinen ederki. Akorde- oia sakrifizioa eskatzen du, baina horrelako bi- daiak eginez gero, neuk ere ikasiko nuke. Ea sari- rik etxera ekartzen duten.

Bestetik, martitzene- an aretxabaletartu bat ikusi nuen telebistan. ETBko Begia gose progra- man erlijio kontuak aipa- tu zituzten. **Arantxa Jaka** Agustindar elkarte- ko lekaima ere hantxe ikusi genuen. Galdera ugari egin zizkieten, bai- na ondo moldatu zen guztiak erantzuteko.

Beste kontutxo bat ere jakin dut, **Olabe** Realeko entrenatzailea UDA fut- bol taldean ibilitakoa ei da. Gainera, gure herrian senideak ere baditu. Ka- sik etxekoa, beraz. Ikusi- ko dugu zer egiten duen. Lortuko ote du Reala zulutik ateratzea? Nik itxaropenik ez dut galdu behintzat.

NATURA/ Hamar urte bete ostean, garai baten sasi lekua zena zuhaitz dotorez jositako parke bihurtu da Iturriondon

Iturriondo parkeak euskal basoaren sekretuak gordeko ditu guztiondako

MIRARI ALTUBE

Udaberria heldu da eta zuhai- tzak hostoz betetzen hasi dira. Herriko hainbat lagun kezkatu- ta daude euskal basoaren sekretuak aitona-amonekin batera galduko direlakoan. Hori dela eta, jatorrizko basoaren irudia gorde nahi izan dute Iturriondo parkean.

Orain dela hamar urte, herrita- rren eta, batez ere, gazteen natura- rekiko ez jakintasunaz kontura- tuta, Euskal Herriko basoa eza- gutaraztea pentsatu zuten Aretxabaletako hainbat lagunek.

Sasi leku handi bat besterik ez zen garai hartan Mendiolar- a bidean dagoen Iturriondo zelaia. Profesional batzuei iritzia eska- tu eta proiektutxo bat egin zuten, baita udalak oniritzia eman ere. Horrelaxe eroan da aurrera eus- kal basoaren irudi izan gure duen parkearen proiektua.

GAZTE TALDE BAT LANEAN

Herriko talde bat -gehientsue- nak gazteak- ibili zen zelaia gar- bitzen. Handik eta hemendik eka- rri zituzten landareak, batzuk inguruko basoetatik, beste batzuk urrutiko mendietatik, eta erosi ere egin zuten bat edo beste. Zuhai- tzak, gehienak txikiak eta mehe- ak, hiru zutabetara lotu zituzten, haizeak eraman ez zitzaizkien. Poliki- poliki, bentaja polita egin dute zuhaitz eta zuhaixka gehien- tsuenek, eta ez dute euskarririk behar dagoeneko.

HERRITARREN INTERESA PIZTU GURAN

Hamar urtean, zuhaitzek gora egin duten neurrian, naturare- kiko interesak behera egin du. Horrek kezkatzen ditu Angel Loi- di eta Jose Mari Sarasua: "Aret- xabaletarrek ez dakite herritik pauso batera zein leku polita dau- katen. Paseotxo bat egin, eguzkia hartu edo seme-alabekin zuhaitz eta zuhaixkak ikustera etortzeko leku paregabea da".

Euskal basoaren irudi izan gura duen parkeari, ingurua txu- kuntzea falta zaiola: bidea samur- tu, eserleku batzuk jarri, zuhai-



MIRARI ALTUBE

Hirurogei zuhaitz espezie baino gehiago eta beste hainbat zuhaixka daude Iturriondoko baso txikian.

tzak izendatu... Baina hori ere hel- duko da, herritarrek interesa azaltzen badute. Zuhaitzak, berriz, gero eta handiago eta doto- reago daude: haginak, zumarrak, urkiak, arteak, gurbitzak, goros- tiak, ereintzak, ipuruak... Hiru-

rogei espezie baino gehiago, eta bakoitzetik hiru bat landare.

Udaberria heldu da eta polito egongo dira zuhaitzak. Inguruko basoetan galtzen doazen zuhaitz horiek gorde gura dituzte Itu- rriondon, ondorengoek ere horien

berri izan dezaten. Berri izateko, ordea, interesa behar da. Ange- len eta Jose Mariren esanetan, natura talde batek beste bizitasun bat emango lioke herriko natu- rari. Hortaz, animatzen denak lan polita topatuko du.

Ur biltegi zaharra, gaur egungoen eredu

Iturriondo parkean, zuhaitzez eta zuhaixkez gain, herriko ur biltegi zaharra dago. Garai baten, biltegi horretatik bideratzen zuten ura herrira. Gaur, ostera, ez du inolako funtziorik. Hala ere, ez da nola- nahiko biltegia: gaur egun eraiki- tzen dituztenei zer erakutsia du.

Biltegia lur azpian eraikita dago. Aurrealdea du bistan, beste guztia belarrak eta landareek estaltzen



dute-eta. Naturarekin bat datorren biltegia da, ingurua errespetatzen duena. Handik, berriz, Urkulura bidean egindako ur biltegi berria ikusten da. Porlanezko eraikin handi eta zatarrak. Urte asko pasatu dira biltegi zaharra eraiki zutenetik hona, baina egin zutenek gaurkoek baino gustu handiagoa erakutsi zuten. Izan ere, diruaz gain, beste kontu batzuk ere badaude.

ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

MUSIKA/ Akordeoilarien eta laguntzaileen artean, hogeita bost lagun joan dira herritik

Akordeoi Orkestra Pragan da, Europako Txapelketan

MIRARI ALTUBE

Europako II. Akordeoi Orkestren Txapelketan hartuko du parte Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak. Gaur, egubakoitza, hasi eta astelehena bitartean, Europako akordeoi orkestra onenek dakiten guztia erakutsi beharko dute. Zortetik onena opa diegu aretxabaletarrei.

Atzo, hilak 21, irten ziren Akordeoi Orkestrako kideak eta laguntzaileak Txekiar Errepublikako hiribururantz. Pragan egingo dituzte hurrengo sei egunak, baina ez dira hiria bisitatzera joan. Hain justu, Akordeoi Orkestrendako antolatutako txapelketan hartuko dute parte.

ORKESTRA KLASIKOEN SAILEAN

Europako hamabi herritatik joandako hogeita sei akordeoi orkestra arituko dira norgehiagokan egunotan Pragako Národního domu Vinohrady antzokian. Euskal Herriko orkestra bakarria izango da lehian, Aretxabaletakoa, hain justu ere.

Txapelketa hiru mailatan banatu dute antolatzaileek, eta aretxabaletarrek orkestra klasikoari dagokion sailean joko dute, maila goienean, gainera. Akordeoilariak dakiten guztia erakusteko, pieza bi jo beharko dituzte epaileen aurrean. Bata, derrigorrezkoa da, antolatzaileek eskatutakoa, eta bestea, programa libre, norberak aukeratutakoa. Bigarren hori hamabost bat minutuko saioa izango da. Eta perkusioak lagunduta joko du akordeoia Aretxabaletako taldeak.

Abendua ezker, buru-belarri ibili dira entseguak egiten hementzi akordeoilari eta hiru perkusio jotzaile. Pragara joan aurretik, Juanjo Orobengoa irakasle eta zuzendariak esan zigun ez duela gura sarietan pentsatzerik: "Gure saria Pragara joatea da, eta ez da gutxi. Lehiaketan parte hartu ahal izateko ahalegin handia egin dugu eta Europako Txapelketan izatea nahiko sari da". Aurkari gogorrak izango dituzte, alemaniarrek eta italiarrek, besteak beste, baina Juanjo lasai dago:



Akordeoilariak fin lanean, Pragara joan aurreko azken entseguetan.

MIRARI ALTUBE

Pieza bi jo beharko dituzte: bata, derrigorrezkoa eta bestea, programa libre

"Europako Txapelketan parte hartzea nahiko sari da guretako, eta ez da gutxi"

"Geure maila erakusten badugu, ni pozik itzuliko naiz".

BESTE JARDUERA BATZUK

Txapelketak parte hartzaileen gain sortuko duen urduritasuna ahazteko, beste jarduerak batzuk ere egingo dituzte akordeoilariak: hainbat antzokitan kontzertuak eman, hiria ikusteko bisitak egin, eta Moldava erreka gainean dabilen itsasontzian afa-

ri goxoa izango dute. Garrantzitsuena txapelketa izango da, duda barik, baina Praga hiri dotorea alderik alde ikusteko aukera ere aprobetxatuko dute.

Aurten beteko duten 10. urteurrena ospatzeko modu polita izango litzateke saria lortzea Pragako txapelketan. Edozelan ere, sari barik ere ez zaie pozik ospatzeko arrazoirik falta izango, makintxo bat sari dituzte-eta.

LABUR

Aretxabaletako Euskal Herrian Euskaraz taldeak kanpaina baten berri eman zuen

Hizkuntza eskubideen alde borrokatuz, ofizialtasuna eskuratu! Hori xe izango da Euskal Herrian Euskaraz taldearen kanpaina berria. Egubakoitzean eman zuten aditzera gure herrian. Euskara oraindik bigarren mailako hizkuntza dela salatu zuten EHE taldeko kideek prentsurrekoan, eta herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko mobilizazioak egiteko deialdia egin zuten. Donostian eta Iruñean egunotan egin dituzten ekitaldiez gain, Debagoienean ere hainbat egingo dituzte. Aretxabaletan, martxoaren 23an, zapatuan, kale bilkura egingo dute Correos aurrean, 11:00etan. Administrazioei hizkuntza eskubideak errespetatu eta berma ditzaten eskatu gura duten herritar guztiendako deia da.

Aretxabaletako berri ematen duen liburuxka berria kaleratuko du udalak egunotan

Aretxabaleta eta inguruko auzo eta herrien berri ematen duen liburuxka kaleratuko du udalak egunotan. Lezoko enpresa bat aritu da lanean horretarako eta publizitatea jartzeko dirua eman duten enpresei eta komertzioei dagoeneko banatu diete aurrerapen gisa.

Aurreko liburuxka 1997an kaleratu zen. Iaz, bestalde, kale izendegia eta ohituen eta auzoen berri ematen zuen diptikoa atera zuen udalak. 2002. urtean kaleratutako liburuxka berri honek kale izendegiaz gain, mapa fisikoa dauka eta testu gehienak berritu egin dira. 2.800 bat ale kaleratuko dira eta oraindik erabaki barik badago ere seguru asko postontzietan utziko zaizkie herritarrei.

TXUTXUMUTXUA



Azatzako Matikua jatetxea berriro zabalik

Joan den egubakoitzean egin zuten Azatza auzoko Matikua jatetxearen inauguratze ekitaldia. Denbora luzean izan da itxita, zaharberritze lanak egin dituzte-eta. Barrutik eta kanpotik txukundu dute, eta dotore jarri ostean, zabalik da berriro, txorizo muturtxo bat jateko edo bapo afaltzeko. Auzotar eta herritar ugari izan zen egubakoitzean Matikua berritua ikusten, eta jabeak pozik zebiltzan hara eta hona. Eulali sukaldariak ere hartu zuen lagunekin egoteko tarte bat. /MIRARI ALTUBE


TABERNA
ARLUTZ
 MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TEL. 943 79 32 34

OSKAR GARAJEA
 Tel.: 943 79 98 74
 Fax: 943 71 24 59
 Basabe Poligonoa, A-2-4
 ARETXABALETAKO

DOIKALSE
Elektroerosio lanak
 Basabe Poligonoa C-1-1
 ARETXABALETAKO
 Tel.: 943 79 82 44

Iber
 ☆ Loteria ☆
 ❁ Paperdenda ❁
 ❁ Liburuak ❁
 Otalora 2.
 ARETXABALETAKO
 Tel.: 943 79 04 39

ENEKO PÉREZ/URNIETATEL TALDEKO TXIRRINDULARIA

"Txirrindularien maila altua da, eta lasterketetan sufritzea tokatzen zait"

MIRARI ALTUBE

Hemeretzi urte bete zituen astelehenean Eneko Pérezek, eta lehenengo denboraldia du amateur mailan. Iaz, gazteen mailako Fagor taldean ibili zen Eneko, eta aurten, Urnietate taldearekin dabil gogor lanean.

Amateur mailan zure lehenengo denboraldia da. Zer moduz hasiera?

Gogorra. Martxoko lehenengo astean hasi nintzen eta oso gogorra egiten ari zait. Txirrindularien maila oso ona da, eta lasterketetan sufritzea tokatzen zait. Dena dela, lehenengo denboraldia da eta normala izango da hasiera gogorra izatea.

Zer da gogorrena?

Portuak igotzea. Esan dudan moduan, txirrindularien maila altua da eta besteen erritmoa segitzea gogorra da. Hala ere, uste dut igoeretan ez naizela gaizki moldatzen, pisu txikia daukadalako.

Talde barruan lan konkretua dauka ziklista bakoitzak?

Ez beti, baina batzuetan bai; izan ere, amateurrok profesionalen antzera egiten dugu lan.



MIRARI ALTUBE

badoa, harendako lan egitea tokatzen zaigu besteoi.

Bihar, hilak 19, badaukazu lasterketaren bat, ez?

Bai, Golarra Igoera. Aurten, itzulia aldatu egin dute, eta proba horretan arituko naizen lehenengo aldia izango da. Lasterketa bukatzea gustatuko litzaidake. Lehenengo lasterketan, esaterako, txirrindulari bat jausi egin zen eta ni tropeleko bigarren taldean geratu nintzen, oso atzean. Ea oraingoan zorte hobea daukadan.

Zaletasuna etxetik dator?

Bai, aitak animatu ninduen mundu horretan sartzera, hari izugarri gustatzen zaio eta txirrindularitza. Lehen, entrenatzera ere aitarekin joaten nintzen, baina orain, belauna ez dauka batere ondo, eta ezin dit jarraitu. Entrenamenduak Bergarako taldekide batekin egiten ditut.

Etorkizunari begira non ikusten duzu zeure burua?

Ez dakit. Oraindik oso goiz da ezer esateko. Amateurretan lehenengo urtea da eta denboraldia ezagutzen eta martxa hartzen pasatuko dut. Gora igotzea gustatuko litzaidake, baina ez da batere samurra izango, txirrindulari onak daude eta amateur mailan.

"Hala ere, uste dut igoeretan ez naizela gaizki moldatzen, pisu txikia daukadalako"

Horrela, bada, lasterketaren baten taldekideren bat buruan

PILOTA

Errasti anaiak Debarroko Txapelketako finalera iritsiko dira martitzenean Elgetan irabazi ezker

Joan zen aste bukaeran Udaberri Torneoko final aurrekoa jokatu zuten Errasti anaiak Tolosan. San Estebango pilotariek alde handia atera zieten Aretxabaletan, beraz, ez zuten batere samur. Hala ere galtzea tokatu zitzaizen aretxabaletarrei. Hurrengo astean, Deba Arroko Txapelketako final aurrekoak jokatuko dute Elgetan. Oraingoan 7 tanto egin ezker finalera pasatuko dira.

KARATEA

Zapatuan, hilak 23, karate erakusketa egingo du kirol etxean Aretxabaletako eskolak

Aretxabaletako karate eskolak karate erakusketa egingo du zapatuan, hilak 23, 17:30ean kirol etxean. Urtean zehar ikasitako erakutsiko diete Odilo Vázquezekin ikasleek guraso eta kirol etxera hurreratzen diren guztiei. Erakusketa batean baino gehiagotan hartzen dute parte karate eskolako gaztetxoek eta oraingoan herrian bertan tokatu zaie egitea erakustaldia.

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Gure Txokoa-UDA

Preferentea.

Zapatua. 16:30. Bera.

UDA-Behobia

Bigarren mailako erregionala.

Zapatua. 15:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab. -Lizardi Igeldo

Kadeteak.

Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.

Beharzana-Aretxabaleta

Bigarren mailako gazteak.

Egubakoitza. 21:30. Billabona

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 1 Oiartzun 2

Preferentea.

Urki 0 UDA 6

Bigarren mailako erregionala.

Eibar Aleg. 4 UDA 0

Bigarren mailako gazteak.

Ordizia 2 UDA 1

Lehenengo mailako kadeteak.

Tolosa 2 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 0 Beraun Tour. 2

Bigarren mailako gazteak.

UDA 2 Eibartarrak 0

Lehenengo mailako haurrak.

PILOTA

Udaberri Torneoa

Aretxab. 4 Beharzana 22

Bigarren mailako gazteak.

Illunpe 22 Aretxaba. (2) 10

Arrasateko 18 Aretxaba. (1) 22

Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. (2) 6 Intxaurren 22

San Esteban 22 Aretxab. (1) 8

Seniorrak.

Deba Arroko Txapelketa

Aretxab. 2 Oskarbi 22

Gazteak.

Aretxab. 22 Oskarbi 6 Seniorrak.

FOTOKIROLA



Kemen taldeak jarraitzen du buru

Bi jardunaldi izan dira astean, zapatuan eta martitzenean, eta Kemen taldeak jarraitzen du buruan 6 punturekin. Atzetik Putas de Satán 5 punturekin eta MCM 4 kin datoz. Aste Santuan, futbito jokalariek ere oporrak hartuko dituzte, beraz zapatu honetan izango dira hileko azken partiduak. Apirilaren 13an hasiko da berriz Arlutz taberna ostean dagoen kantxa betetzen eta maiatzean bukatuko da txapelketa. /MA

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

TXIMAK

- Ile apaindegi mistoa
- Estetika
- Depilazioa argizari epelarekin

Herriko plaza 5.
ARETXABALETA.
Tel.: 943 79 83 64



ERRETRATUZHARRA

Luistarren kongregazioa Aozaratzan

Orain dela berrogei bat urte, neska-mutil ugari kongregazioetan sartzen ziren gaztetatik. Aretxabaletan, auzoko neskek Mariaren alabak ziren. Mutilak, berriz, Luistarrenak.

Erretratu zahar honetan Luistarren Kongregaziokoak ditugu. Arientzako, Azatzako, Larrinoko eta Koruetako mutilak. Bandera aldean dutela, kongregazioaren sorrera eguna ospatu zuten Azatzako San Juan Bautista elizan.

Lehenengo ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: On Bonifacio (Koruetako parrokoa), Juanito Uribebarria, Jose Okarantza, Domingo Arenaza, Fermin Madinabeitia, Daniel Uribebarria, Jose Antonio Uribebarria eta Rafael.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik hasita, honakoak ageri dira: On Jose (Larrinoko parrokoa), Agustin Iturbe, Fermin Arenaza, Maximo, Jose Luis Güemes, Joxe Mari Arenaza, Francisco Uribebarria, abadea, Selestiño Okarantza, Juan Madinabeitia, On



Facundo (Azatzako parrokoa), Jesus Abasolo, eta On Simon (Arientzako parrokoa).

Atzeko aldean gazte gehiago daude. Batzuen izenak badakizkigu, baina guztienak ez. Hala ere, ez daude ilaran jarrita; hortaz, hona hemen gazte horien izenak, guztiak multzoan: Joxe

Mari Etxebarria, Santi Galdos, Vicente Zubia, Joxe Okarantza, Pedro Uribebarria, Vicente Bengoa, Javier Aiastui, Jose Luis Zubia, Millan Arenaza, Antonio Arenaza, Luis Zubia, Gregorio Galdos, Rufino Ezkurra, Bitoriano Isasmendi, Xekun Arkauz, Joxe Benito Aiastui, Joxe


Eraña, Juan Etxebarria, Jose Luis Errasti, Ricardo Bolinaga, Jesus Handikua, Timutio Okina, Jose Ramon Uribebarria eta Felix, Jose Luis eta Inazio Madinabeitia.

Argazkia: Felix Madinabeitia

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Iturben lantokiaren lekukoa

Araba ibilbidean aldaketa ugari egin dituzte oso urte gutxian. Garai baten lantokiak eta baratzak zeuden lekuan, gaur egun, etxebizitzak bakarrik daude. Iturbe enpresarekin ere beste horrenbeste gertatu zen; Asuntzioneko kantoia harena izan zen 1993. urtera arte. Parean, oraindik ere, hortxe jarraitzen du Beroak. Baina lantoki hori ere laster botako dute.



≈ 1993

Iturbe lantokia hasiera baten galdategia zen. Gerora, sarrailak egin zituzten. Bota zutenean, betiko desagertu zen Iturbe.



2002

Lantokiak erdigunetik kendu eta etxebizitza ugari egin dituzte herrian azkenaldian. Asuntzionen gauza bera egin zuten, Iturbe bota eta gero.

OPEL

ZAFIRA COMFORT:
Segurtasuna sentsazio hutsa baino zerbait gehiago denean

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
943 71 20 03 Faxes: 943 77 16 20

Garaje Norteen autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



Ze barri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 22a / 73. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

IÑAKI YEROBI/ESKORIATZAKO TESA-KO ZUZENDARIA

“TESAk, azkeneko urteotan, mundu osoan zabaldu du gure herriaren izena”

AINTZANE GARDOKI

Errenteriarra da jaiotzez, baina urte ugari daromatza gure artean. Lehenengo, kooperatibetan ibili zen, han eta hemen, baina 1998ko urtarrilaz geroztik, Eskoriatzako TESA lantegiaren arduraduna dauka Iñaki Yerobik.

Zelakoak izan ziren TESAREN hasierako urteak?

Urte asko pasatu dira 1941ean Aranburuzalabala kalean Itartek tailer txiki bat zabaldu zuenetik hona. Orduz gero, haziz joan da. **Eta han eta hemen zabaldu da?** 70eko hamarkadan, Eskoriatzako lantegia txiki gelditu zela-eta, Irunera eraman genituen bulego orokorrak. Mugatik gertu, komunikazio aldetik egokia zen Irun. Geroztik, han egin dituzte sarraila elektronikoak. Madrilerara ere joan ginen geroago. Madrilen, estatura errazago zabalteko, biltegia jarri genuen. Gipuzkoan, Aretxabaletan eta Astigarragan ere zabaldu genituen lantegiak. Eta orain, berriz, proiektu eta ilusio berriekin, Eskoriatzan 10.000 metroko eraikina inauguratu berri dugu. **Multinazional baten parte zarete orain.**

1997an, Williams enpresa ingelesak TESA erosi zuen. Prozesu luze baten ondoren, inguruko sarraildegi gehienak bezala, Suediako ASSA ABLOYren barne sartu ginen, 2001eko azaroan. **Sarraila da zuen produktua. Zein da zuen bezeroa?** Hirurogei urte baino gehiago daromatza sarrailak egiten. Hemen, sarraila mekanikoak eta produktuaren akabatuz arduratzen gara. Irunen, esan dudan moduan, pomaak eta, batez ere, sarraila elektronikoak egiten dituzte. Eta gure bezeroa non-nahi aurki dezakegu, munduko edozein lekutan. Mundu osoko hotelak eta eraikin handiak dira, batik bat, gure bezeroak.

Zelako garapena izan du sarraillak?

Garapen handia izan du. Egun, sarraila elektronikoa da errege; horietan, egunetik egunera gara-



AINTZANE GARDOKI



AINTZANE GARDOKI

“Inguruko sarraildegi gehienak bezala, ASSA ABLOYren barne sartu ginen”

tzen diren osagaiak daude: segurtasuna, sarrera kontrolak... Betiko sarrailetan, berriz, garapena produktuaren hobekuntzan egon da. Asian, adibidez, produktu berbera askoz kostu txikiagorekin egiten da, eta hori da guk daukagun erronka handiena, produktua etengabe hobetzea, alegia. **Punta-puntan dagoen enpresa da TESA.** Estatuko merkatuaren erdia bai-

“Gure eguneroko erronkarik handiena produktua etengabe hobetzea da”

no gehiago daukagu. Lehen esan bezala, mundu osoan gaude presente. Produktzioaren %55 Erdialdeko Amerikara, AEBetara, Europa erdialdera, Asiarara eta Afrikara esportatzen dugu. Ondorengo hiru urteotan, Europako ekialde-
ra heltzea dugu helburu. **Ingurumenarekin arduratzen da TESA?** Askok. Esate baterako, hondakinurak arazteko eta ur-kontsumoak

“Langilea da potentzialik handiena. Giza gaiak zaindu egiten ditugu”

minimizatzeko estrategia integrala daukagu, eta onura handiak lortu ditugu dagoeneko. **Eta langileekin ere arduratzen zarete?** Hori da daukagun potentziala. Enpresako giza gaiak asko zaintzen ditugu. Datorren urtean, esaterako, 35 orduko lan-astea izatea espero dugu, soldatak ere asko zaintzen ditugu... Ezinbestekoa da langilea pozik izatea.

“Lan egiteko gogoak egin du posible eraikin berria jasotzea. Badugu zer egin!”

Zer eman dio TESA enpresak Eskoriatzari? Askok. Lehenik eta behin, herriko izena munduan zabaldu du. 185 familiarik eman dio lana herrian, eta guretako osagaiak egiten dituzten beste hainbeste langileri ere ematen diogu lana ibarrean. **Eta aurrerantzean?** Ilusioak eta lan egiteko gogoak egin dute posible eraikin berria jasotzea. Badugu zer egin!

HEZKUNTZA

Ateak zabalik HUHEZIn eta hizkuntzaren transmisioa ikastolan

AINTZANE GARDOKI

Joan den astean, hezkuntzaren gainean izan zen zer entzun. Izan ere, egunean, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako Fakultatean gazteek lantegia ikusteko eguna antolatu zuten.

Pozik agertu ziren HUHEZiko arduradunak, gazte ugari izan ziren-eta egueneko ekitaldian. Fakultatean eskaintzen dituzten hiru ikasketen berri eman zieten gazteei. Horrela, Humanitate Enpresa, Irakasle ikasketak eta Psikopedagogia ikasketen berri jaso eta gero, bisitaldia egin zuten, fakultatea ikusteko.

Arizmendi Ikastolako Almenen, berriz, Josune Alberdi bergararra hizkuntza egokia trans-

“Jende gutxi? Eskolari delegatu diogu, gauza askotan, gure seme-alaben ardura”

mititzeko garrantziaz mintzatu zen. Guraso gutxi izan ziren. “Eskolari delegatu diogu, gauza askotan, gure seme-alaben ardura”, gaineratu zuen hitzaldia amaituta Alberdik. Haren ustez, euskarari gurasoek ematen dioten garrantziaz jabetu behar da umea, gero, hizkuntzaz disfrutatzen.



AINTZANE GARDOKI

Gazte eta guraso asko izan ziren HUHEZIn.



Almen Ikastolako ikasle talde batek Alemaniako 15 gazte hartu ditu etxean

Azkeneko urteetan egin den legez, aurten ere, Alemaniako Nurenbergeko 15 gazte hamar egun pasatu dituzte gurean. Gaztelera ikastera etorri dira, baina euskara hurbiletik ezagutzeaz gain, Euskal Herriko hainbat txoko bisitatzeko aukera ere izan dute. Ekainean hemengo talde bat joango da Alemaniara. J.A.G.



Truke Programan parte hartu duten kideek agur esan diote gure ibarrari

Duela hilabete etorri ziren gure ibarrera. Geroztik, makinatxo bat leku eta txoko bisitatu dituzte. Horrela, Euskal Herriko berri ugari izan dute, baina hemengook ere izan dugu nork bere herrian bizi dituen esperientziak ezagutzeko aukera. Agur esan, eta alde egin dute dagoeneko, gehienak Ameriketara, eta hiru Afrikara.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde Ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

PILOTA PARTIDUAK
Gaur, egubakoitza, 18:30ean, pilotalekuan. Retegi VII.a Errandonea III.aren kontra, eta Otaegi eta Iñurrategi Etxaniz III.aren eta Galarza IV.aren kontra.

ALDAIPE ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA
Ehiza eta arrantza elkarteak batzar orokorra egingo du bihar kultura etxean. 16:30ean lehenengo deialdia eta 17:00etan bigarrena.

UDABERRI JAIA
Zapatuan. Triki poteoa eta herri bazkaria. Gero, kontzertuak non-nahi.

AXTOKIRENAGENDA

GOIENAKO BATZAR OROKORRA
Egubakoitzean, hilak 22, Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak batzar orokorra egingo du. Axtroki euskara elkarteak ere parte hartuko du bertan, bazkide den aldetik.

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA

EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

MARI TERE

ILEAPAINDEGIA

Dorleta auzoa,
15. poligonoa, 6-ezk.
ESKORIATZA
943 71 40 19

Toki Eder elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen San Jose egunean

AINTZANE GARDOKI

Martitzen goizean elkartu ziren Toki Eder elkarteko bazkideak, urteko batzar orokorra egiteko. Erretiratuek izan ezik, beste bazkide guztiek hartu behar zuten parte batzarrean, baina hala ere, bazkide batzuek huts egin zuten. Izan zen zer eztabaidatu bileran.

Bost puntuk osatu zuten eguneko gai zerrenda. Horrela, elkarteko presidente Dorleta Elkorobarrutiak hurreratutakoei ongietorria eman ondoren, Aitor Díaz de Mendibil idazkariak hasi zuen batzar orokorra.

Aurreko urteko akta irakurri eta aho batez onartu zuten bazkideek. Gai zerrendako bigarren puntuan, 2001eko balantzearen berri eman zuen idazkariak. Kafeontzi berria eta egur sorta izan dira, Mendibilen ustez, iazko balantzean kontuan hartu beharreko mugimendu handienak.

ZUZENDARITZA BATZORDEA BERRITU

Gero, zuzendaritza taldea berri-tzeko hiru kide hautatu zituzten: Alberto Oñate, Jon Barandiaran eta Luis Mari Zubillaga.

Laugarren puntuan, aurten bazkide egin direnen eta elkarteak utzi dutenen berri eman zuten batzordekideek. Guztira sei bazkide egin ditu Toki Eder elkarteak aurten, eta baja bakarria izan da, bazkide hura hil egin zen-eta.

Eskarien eta galderen tartean, hainbat proposamen egin



Toki Eder elkarteko bazkideek urteko batzarra egin zuten martitzenean.

AINTZANE GARDOKI

zituzten batzordeko kideek; alde batetik, bazkide izateari uzten duenari ez diotela diru-ekarpena itzuliko. Onartu egin zuten. Sukaldea erosteko aukeraz ere egin zuten berba, baina dagoena konpontzea erabaki zuten bazkideek.

Bazkideen arteko eztabaida

handiena elkartean egiten diren umeen meriendak izan ziren. Luze joan zen eztabaida: "Umeak elkartean egotea berria da, urtetan ez da hori ikusi eta, agian, ez dakigu zelan jokatu horren aurrean", adierazi zuen bazkide batek batzarraren ondoren. Ume-

en urtebetetzeetako meriendetan, umeko 0,60 euro ordaintzea erabaki zuten, bazkideen arteko eztabaida zuzen-zuzenak izan ondoren. Elkorobarrutiak gogoratu nahi izan zuen legediko seigarren artikulua errespetuaren gainekoa dela, eta elkarteko kide

Erretiratuek izan ezik, beste bazkide guztiek hartu behar zuten parte urteroko batzar orokorrean

Jon Barandiaran, Luis Mari Zubillaga eta Alberto Oñate dira batzordekide berriak

Bazkide batek proposatu zuen elkarteko oinarrizko hizkuntza euskara izatea

izateko ezinbestekoa dela elkarraren artean errespetua izatea.

Batzar orokorra amaitu aurretik, beste bazkide batek proposatu zuen aurrerantzean elkarteko oinarrizko hizkuntza euskara izatea. Luncha egin zuten batzar orokorra amaitzeko.

OTZETA

TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORATZA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

Santa Ana

GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORATZA
Tel. 943 71 52 36



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79.81 78 / 670 997 274

COMPOSTELA

Taberna

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORATZA
943 71 48 70

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



Matikua jatetscea


KANPOTIK ETA BARRUTIK BERRITU DUGU! **ZATOZI!**

Azatza auzoa ARETXABALETA
943 79 16 68

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.




Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko martxoaren 22a / 578. zenbakia

2002ko udal aurrekontuak

Hirigintza

Hezkuntza

Pertsonala

Kultura

Gazteria

Zerbitzuak

Osasuna

ORAIN ETA HEMEN: EGITAMU OROKORRARI ALEGAZIOAK/7 • KIROLA: Z. EZPELETA LEHENA BASAURIN/12

Edertasunaren Gida

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Jose Antonio

**GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA**

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSi

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

aitor


Gizonezkoen ile apaindegia

Otalora, 14 • 20500 ARRASATE


Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

Gida honetan azaltzea
nahi baduzu, deitu ezazu
943 71 23 91 telefono zenbakira.


KALEINKESTA/ Basurie jasoteko sistema barrixakin konforme zagoz?




PACO GURIDI
Langillie



FELIX AJURIA
Jubilae



FRANCISCO GALIOT
Langillie



ADELA GARDOKI
Langillie



ARANTXA UNAMUNO
Langillie



IZASKUN ALTUNA
Langillie

Bai, diferentzia edarra dago. Lehen, txakurrek-eta ibiltten zien basura artien, eta oin, garbixago dago. Ez dotena ulertzen da zergaitik ez dauen erdiko zonaldeen ipiñi. Bestela, ondo.

Oin, askoz hobeto dago. Karga eta deskarga egitako askoz be samurrague da, eta garbixague be bada. Horrekin batera, lehenago ordu jakin batzuk euzen, eta oin, barriz, ez.

Bai, egixe esan oin hobeto dago. Lehen, basurie kalien egoten zan, eta oin, dana ondo jasota dago. Horrekin batera, kontenedoriek leku egokixetan jarri dittue. Hor-taz, konforme nago.

Konforme nago, ordutik kanpo be basuria itxi leikelako. Oin, horreik be zaindu egin biherko die, eta basuria barrura bota, kanpuan be ikusi izen dot-eta. Zaindu ezkerro, ondo.

Bai, neu, behintzet, konforme nago. Gehixenbat, animalixengatik. San Andresen katu eta txakur mordua ibiltten zan basura artien, eta arazo hori, behintzet, konpondu da.

Oso ondo daguela uste dot. Lehenago ipiñi biher zittuen. Oin Udalari eskatu biherko jako kontenedoriek garbi egotie; hau da, astero hustu biher die, garbi eukitteko.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK GAZTETXEKO ORDUTEGIA Gaztetxeke kideek deitu digute eta aste honetako txistuak eurek merezi dituztela onartu digute. Itxura denez, azken asteotan ez dute gasetxeke ordutegia ondo zaindu. Are gehiago, joan den egueneko jaialdia berandu samar bukatu zen. Horregatik guztiagatik, euren buruari kritika egin gura diote: bizilagunen eta guztion onerako ordutegia betetzen saiatuko dira.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

KULTURA /14

ZAHARRAK /17

Sahararen egoera

Jose Mari Argin-zoniz pediatria Saharan egon da, eta Saharako egoeraren berri eman digu.

Kultur Errotaren kontzertua

Berako Onddo pop taldeak kontzertua emango du gaur Jai Zalen, Kultur Errotak antolatuta.

Zaharren alde kanpaina

Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak kanpaina berezia jarri du abian egunotan.

ASTEKODATUA

27

MILOI EURO DITU UDAL AURREKONTU OROKORRAK

Hogeita zazpi milioi pasatxo euro ditu Arrasateko udal aurrekontu orokorrak. Kopuru horretatik, 1.152.535,08 euro AUKEArendako izango dira eta 1.633.605,97 euro, Iturbide egoitzarendako.

BESTEKEKESANA

“Kooperatibek duten mailaren berri neukan baina banan-banan enpresak ezagutu berri ditut

eta oso harrituta gelditu naiz, ia guztien lehiakortasun maila oso altua delako. Kooperatibak izugarriko bilakaera izan du azken hamar urtetan, eta negozioaren beraren ikusmoldean jauzi ikaragarria eman dela esan beharra dago (...) MCCren helburuak hezkuntzarekin eta berrikuntzarekin lotuta daude: dagoeneko, MUK esku artean proiektu interesgarri bat dauka, Garaia berrikuntza industriguneak lehenengo pausoak eman ditu, eta MCCren Zientzia eta Teknologia plana zehaztuta dago. MCCren planifikazio estrategikoa ondo bideratu ahal izateko proiektu horiek bultzatzea ezinbestekoa da”.

JESUS CATANIA
T.U. LANKIDE/02-02-01

HERRITARRENBERBAK/ Iker Ezpeleta



Aurre egin biolentoei!!!

Berriz ere elkartu dira “biolentoak” pasa den aste bukaeran, oraingo honetan Bartzelonan.

Hiru egunetan zehar, barrikaden bitartez, kaleak moztu, hamar mila pertsona zabaldu, helikoptero, tanke, hegazkin eta guzti, biztanleria izutuaz. Dena botere inperialistaren izenean (edo ezagunagoa egiten zaigun eta inposatutakoa den globalizazio hitza). Eta horren aurrean, ehunka mila pertsona beren haserre erakusten. Indar militarizatu eta herriaren arteko borroka.

Bien bitartean, komunikabide masiboak “biolentoak” xaxatzen eta herria kriminalizatzen. Barregarria kazetariak kristal apurtuen atzetik ikustea edo *El factor humano*-ko esataria manifestariak galdekatzu: Indarkeriaren aldekoa zara? Erantzuna, tarta bat aurpegira. Ez zien hori galdetu armaturik zihoazenei.

Ez zen barregarria, adibidez, telebistan ikusi nuen

manipulazioa; “manifestari baketsuak beste manifestari biolento bat segurtasun indarrei ematen”, kalez jantzitako poliziak, manifestari baketsu hauek. Edota atxilotu eta jipoituak, edo ekintza baketsu batengatik hiru egun komisarian eman dituzten hirurogeita hamarna urteko euskal herritarrek...

“Dena botere inperialistaren izenean (edo ezagunagoa egiten zaigun eta inposatutakoa den globalizazio hitza)”

Beste mundu bat posible da, bai, baina ez digute oparitu. Beraz, gailur hauek folklore hutsean gelditzetik ez badugu nahi, tokian tokiko ultraliberalak eta botere inperialista borrokatu beharko ditugu; bai gaur euskararen ofizialtasunaren aldeko kontzentziora joanez (19:00etan, Seber Altuben); bihar, Gasetxearen aldeko manifestaziora Gasteizera joanez (19:30ean) edo bihar ere, AHTren aurka Hermitik Astigarragara egin behar den martxan parte hartuz (17:30ean, Tilosko plazan). Ikusiko garelakoan...

Pentsatu orokorrean, ekin tokian eta unean!

Arrasate
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 22
Español. Araba etorb. 17 943 79 18 65

ZAPATUA, 23
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15

DOMEKA, 24
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99

ASTELEHENA, 25
Corcuera. Maisu Aranbarri 1 943 79 22 26

MARTITZENA, 26
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39

EGUAZTENA, 27
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUENA, 28
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualetoia 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTZAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRIAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

EHE-REN KALE BILKURAK
Gaur -eta ez joan zen astean, iragarri genuen moduan-, 19:00etan, Seber Altuben Euskal Herrian Euskaraz taldearen kale bilkura eta mural margo-tzea. Bihar, berriz, eskualdeko manifestazioa, Bergarako plazatik, eguerdiko hamabietan.

KULTUR ERROTA
Gaur, 22:30ean, Jai Zale tabernan Onddo musika taldearen kontzertua. AEDk antolatuta eta Kultur Errotaren barruan.

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
Energia berriztagarrien gaineko ikastaro teknikoak prestatzen dabilza. Informazio gehiago 679 69 33 18 telefono zenbakian.

FLAMENKO FUSIO KONTZERTUA
Bihar, gaueko hamabietan, Gambrius garagardotegian flamenko fusioko Once Varas taldea arituko da. Sarrera doan izango da.

MUGARRIZ MUGARRI
Domekan, 09:30ean, Arbolapetan egin dute hitzordua AEDk eta Arrasateko Kirol proiektuak, gura duenak Garagartzako baserri, kobazulo eta inguruak bisitatzera joateko.

AEDrenAGENDA

AED-REN LAN-POLTSA
AEDk lan-poltsa zabaldu behar du. AEDn lan egin gura baduzu, bidali curriculum Pablo Uranga 6ra.

AED-REN AUZOLANDEGIAK
AEDk auzolandegeiak antolatu gura ditu udan. Baionako AEK konpontzea dute helburu, eta lantaldea osatu gura dute, hara joateko.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

‘Etorkizuna euskaraz dator’ kanpaina

Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) euskarazko ereduaren aldeko kanpaina bultzatu zuen herrian, Udalaren eta AEDren laguntzarekin. Helburu nagusia zen lehenengo aldiz matrikulatu ziren umeen gurasoak kontzientziatzea, seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza hautatzeko.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Trontzua”

Okela edo arrain zati eder ete lodia. *-Trontzoik ederrena beretako artu zeban da neri gizenak eta girixak besteik ez.*



GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Txatxiartistak, ‘Eguzkiaren bila’

Txatxiartistak talde arrasatearra han eta hemen dabil *Eguzkiaren bila* lana antzezten. Herriko hogei bat gaztek esku hartu dute ikuskizunean, eta irradian izan ditugu horren gainean berba egiten. Zapatuan eta domekan izango dugu elkarrizketa entzuteko aukera, 11:00etan. Bestalde, Jose Mari Arginzoniz medikuarekin ere izan gara; Saharan, errefuxiatuen kanpamendu baten izan berri da pediatria arrasatearra, eta bidaiaren helburuak azaldu zizkigun.

‘e-debagoiena’-ren aurkezpena, zuzenean

Astelehen goizean, zuzen-zuzenean eskainiko dizue Arrasate Irratiak *e-debagoiena*-ren aurkezpena. Leintz Gatzagako gatz museoan egingo dute ekitaldia, 11:00etatik aurrera, eta irratiak 10:00etan hasiko du saio berezia. *e-debagoiena* proiektua oso garrantzitsua izango da ibar osoan, eta une hori jasoko du Arrasate Irratiak astelehenean. Ekitaldia zuzenean eskaintzeaz gain, zuzeneko elkarrizketak egingo ditugu Gatzagan bertan.

HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 17 **4 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 19 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **14,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	21 °C	10 °C	5,9 l/m²
Eguena, 14	16 °C	5 °C	2,5 l/m²
Egubakoitza, 15	16 °C	6 °C	— l/m²
Zapatua, 16	16 °C	10 °C	5,7 l/m²
Domeka, 17	15 °C	4 °C	— l/m²
Astelehena, 18	16 °C	10 °C	— l/m²
Martitzena, 19	24 °C	14 °C	— l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 MIR

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz
22:00 Pottokatzen

EGUENA
21:00 Gailurretik/Mikelenea

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)
24:00 MIR (errep.)

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak
23:00 Mikelenea

ASTEABIHITZETAN

Istripu larria Goianen

Joan den egubakoitzean, istripu larria gertatu zen Goianeko industria eremuan, Legution, hain zuzen ere. Aretxabaletako gazte bat, Iñaki Galfarsoro Madariaga hil egin zen eta 39 urteko mondrogoetar bat larri zauritu.

Ustez, kupel handi bat garbitzen ari ziren bi langileak, eta gas toxikoa arnastu zuten. Ezbeharrak gertatu zenean, bi langileak bakarrik zeuden Legutioko lantokian eta goizaldean, familiakoek Ertzaintzari abisatu zioten, bi langileak etxean agertzen ez zirela ikustean.

Kale erasoak

Goizean goiz, kaputxadun talde batek Kontzezino pareko edukiontzia errepidera bota zituzten eta gero sua eman zieten joan den egubakoitzean. Horrek Arrasateko erdialdeko zirkulazioan eragin zuen, auto ilarak sortuz; udaltzainek zirkulazioa bideratu behar izan zuten, baina, laster kendu zituzten edukiontzia.

Horrez gain, Gesalibar eta Aramaio artean beste eraso bat gertatu zen. Hain zuzen ere, Gesalibarko zerratoki parean ezezagun batzuek edukiontzia bide erdira atera eta sua eman zioten. Kasu honetan, goizeko 11:00ak aldera arte izan ziren auto ilarak.

Kontzezinoko lanen ondorioz, ur-eteteak

Joan den eguen gaua eta egubakoitza goiza artean, hainbat langile Kontzezinoko zubi berria egiteko lanean ibili ziren. Zubi berriaren lanak egin ahal izateko, ur sare orokorrean aldaketa batzuk egin behar izan zuten. Eta Udaletik iragarri zuten bezala, lan horien erruz, Arrasateko hainbat puntutan uraren presioa jaitsi egin zen, eta beste batzuetan ura zikin heldu zitzaion. Hala ere, kalteak oso txikiak izan ziren, eta ur sare nagusia egoera onean dago.



FAGOR ELEKTRATRESNAK-EN BALORAZIOA

Joan den eguenean, hilaren 14an, Fagor Elektratresnak enpresako arduradunek prentsaurrekoa egin zuten Gasteizko Ezkibel jauregian. Zuzendari orokor Pablo Mongelosen esanetan, 2001ean, salmentak %3,1 igo ziren, eta nazioarteko merkatuan 382 milioi euro fakturatu zituzten.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Informazioa bermatu

Atzo jakin nuen Israelgo Defentsa ministroak lege berri bat atera duela: kazetarien lana eta adierazpen askatasuna oztopatzen dituen lege susmagarri bat, hain zuzen ere. Jakingo duzue duela gutxi Israelgo armadak argazkilaria italiar bat hil zuela, eta epe laburrean, Israelgo armadak Palestinan tiroz beste hiru kazetari

atzeritar zauritu zituela. Horrekin lotuta, duela gutxi, Israelgo armadak ustez bonbak zeramatzan palestinar bat atxilotu zuen. Atxilotu, eta geroago hil ere. Norbaitek inguruko etxe batetik gertaera horren hainbat argazki atera zituen, eta atzerriko hainbat komunikabidetan argitaratu egin dituzte. Ezta gutxiago ere!
Bada, kontua da hori

gertatu eta berehala Italiako argazkilaria hil egin zela. Eta atzo bertan, Israelgo gobernuak jakinarazi zuen aurrerantzean bere armadaren operazioetan kazetariei, argazkilariei edo kamerei testigu izatea galarazi egingo diela. Antzeko gauzak gertatzen diren arren, oso larria da horrelako erabakiak hartzea. Hainbat lekutan soldaduek, gobernuak edo beste talde armatu batzuek zigorgabetasun osoz jokatzeko dute.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

OPORRAK GERTU DAUDELA NABARI DA HERRIAN

Oporrak edo atsedendaldi sasoia bertan dagoela erraz igar daiteke; Aste Santua datorrela, kasu honetan. Guztiok Aste Santuko atsedend egunak hartzeko irrikan gaude, jakina. Eta are gehiago, oraingo astean, zenbaitzuek zubia ere izan dute. Igarri da batzuek zubia izan dutela, herrian lasaitasuna

arnasten zelako eta aparkaleku ugari egon direlako libre. Guk geuk ere Aste Santuko oporretan jaiegun batzuk hartuko ditugu. Edozelan ere, jaiegunen aurretik, martxoaren 27an, eguaztenean, ARRASATE PRESS jasoko duzue zuen etxeetan, ordura arte lanean fin ibiliko gara-eta lanean. //B.

UARKAPE LEHIAKETA

Uarkape jatetxean bi lagunendako bi afari irabazi gura badituzu, bete ezazu txartel hau eta sar ezazu ARRASATE PRESSko sarreran egongo den kutxan (Otalora Lizentziaduna 31). Zozketa apirilaren 10ean (eguztina) egingo dute Arrasate Irratiko Igo Autobusera saioan.

Izena..... Abizenak.....
Helbidea..... Telefonoa.....

* Afariaren xehetasunak: astelehenetik eguenera, Uarkape jatetxearen eskaintzaren arabera izango da. Ez da fotokopiarik onartuko.

UARKAPE JATETXEA



EKONOMIA/ 2002ko udal aurrekontua

Besteak beste, liburutegi berria egitea aurrez ikusi du 2002ko aurrekontuak

UBANE MADERA

27.043.450,44 euro (4.193.138.079 pezeta). Horixe, Arrasateko Udalak aurtengo ekitaldirako aurrez ikusi duen aurrekontu orokorra. Kopuru horretatik, 1.152.535,08 euro AUKEArendako izango dira eta beste 1.633.605,97 euro, Iturbide egoitzarendako.


Iazkoa baino %6,3 txikiagoa da aurtengo aurrekontua; hain justu, udal aurrekontua ere txikiagoa delako. Izan ere, AUKEAk eta Iturbideko igoera izan dute: %3,66 AUKEAk eta %12,9 Iturbideko.

Horrez gain, berritasun garrantzitsu bat ere badago aurtengo: Hirigintza batzordearendako beharrez, Zerbitzu batzordearendako izango da partida handiena. 6.534.838,68 euro aurrez ikusi dituzte Zerbitzu batzorde-rako, aurrekontuaren %25,9, hain justu ere. Horren barruan, partida handienak Udaltzaingorako, bideak garbitzeko, Mankomunitaterako eta garraio publikorako izango dira.

HIRIGINTZA BIGARREN

Hirigintza da diru gehien jasoko duen bigarren batzordea: 4.224.757,98 euro, aurrekontuaren %16,8, hain justu. Kasu horretan, Cerrajerako urbanizazioarendako izango da diru kopuru handiena. Oinezkoen zumardiak ere diru dezente jasoko du. Bestalde, nabarmentzekoa da Mugarrietan bidegorria egitea aurrez ikusi dutela Hirigintzako aurre-

2002ko aurrekontua sailez sai



kontuetan, baita Garibaiko lur azpiko aparkalekua ere.

Kultura eta Kirolak batzordea dator gero. 3.489.776,42 euroko aurrekontua proposatu dute, kopuru osoaren %13,9. Ospitale Zaharrea egin gura duten liburutegi berriak hartuko du batzordeko partida handiena.

Horixe proposatu du Ogasun batzordea. Hain justu, atzo batu ziren zinegotziak aurrekontua eztabaidatzeko. Artikulu hau idaztean batzarra egin barik zegoen eta ez dakigu onartu duten edo ez. Baina litekeena da onartu izana, Batasunak, EAK eta EBk baiezko botoa eman diote-eta.

8.106.102 euro inbertitzeko

HAU EXEK DIRA AURREZ IKUSITAKO INBERTSIO NABARMENENAK:

Ospitalean egingo duten liburutegi berrirako: 1.202.024 euro/200.000.000 pezeta
Gaztetxea eta lokal osagarriak: 1.202.024 euro/ 200.000.000 pezeta
Cerrajerako urbanizazio lanak: 751.265,13 euro/ 125.000.000 pezeta
Monterron-Erguin zumardia: 601.012,10 euro/ 99.999.999 pezeta
Araba etorbideko urbanizazioa: 300.506,05 euro/ 50.000.000 pezeta
Amaia Udal Antzokiko inbertsioak: 258.435,20 euro/ 42.999.999 pezeta
AUKEArendako: 240.404,84 euro/ 40.000.000 pezeta
Erguin berriko urbanizatzeko: 150.253,03 euro/ 25.000.001 pezeta
Auzoetako inbertsioak: 150.253,03 euro/ 25.000.001 pezeta
Bidegorria Mugarrietan: 120.202,42 euro/ 20.000.000 pezeta.
Horrez gain, Udalak zenbait partida zabalik utzi ditu; horrela, posible bada, gai horrekin zenbait egingo duela adierazten du. Horren barruan sartzen ditu Industria Museoren erakina, talde nomaden kanpalekua eta Makatzena auzoa, esaterako.


Hirigintzarendako beharrez, Zerbitzuetarako izango da diru kopuru handiena

Cerrajerako urbanizazioak eta oinezkoen zumardiak ere diru asko eramango dute

Inbertsioen atalean, gaztetxearendako eta lokal osagarriarendako diru asko gorde dute

Batasunaren, Eusko Alkartasunaren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin egin dute aurrekontua

Iazko eta aurtengo aurrekontuen konparatiba





XABIER URZELAI

Besteak beste, Zabalguneko "etxe txikiak" botatzearen kontrako alegazioak izan dituzte aztergai zinegotziek.

HIRIGINTZA/ Herriko Egitamu Orokorrari 172 alegazio aurkeztu dizkiote

Egitamu Orokorrari egindako alegazioak aztergai bilkuran

UBANE MADERA

Udal aurrekontuekin batera, beste gai garrantzitsu bat ere izan zuen aztergai atzo udalbatzarrek: Egitamu Orokorrari aurkeztu dizkioten 172 alegazioak. Horiekin batera, alderdi politikoei aurkeztutako proposamenak ere aztertu zituzten zinegotziek.

Partikularrek zein elkarteek aurkeztu dizkiote alegazioak. Esaterako, Garagartza-Gesalibar auzoen gainean 11 alegazio batu dituzte; Legarren 13; "etxe txikiatik" bost alegazio jaso dituzte; eta Denontzat, Ekologistak Martxan eta Zutik taldeek ere egin dizkiote alegazioak Egitamu Orokorrari.

Izan ere, Arrasateko Egitamu Orokorrari jasotzen da Cerrajerarekin batera Zabalgunea edo "etxe txikien" ingurua urbani-

zatu egingo dutela; "etxe txikiak" bota eta han etxebizitza berriak egingo dituzte. Jakina, "etxe txikiak" zenbait bizilagunek eta Zutik eta Ekologistak Martxan taldeek "etxe txikiak" botatzearen kontrako alegazioak aurkeztu dituzte.

Bestalde, bi lantegitako langileek ere aurkeztu dituzte alegazioak. Batetik, Legarre pablioia botatzea aurrez ikusi du Egitamu Orokorrari. Hori dela eta, hango langileek eskatu dute pablioia bere horretan uztea edo, bestela, beste irtenbideren bat ematea. Bestetik, Gelmako langile eta enpresaburuak ere ez daude ados enpresa erreka bestaldera eramatearekin.

Zutik taldeak, berriz, eskatu du Uribarriko eta Garagartzako baserriak finkatzea eta babes ofizialeko etxebizitza gehiago egitea. Eta harrobien eragin kaltegarria

ere aipatu du, besteak beste.

Harrobien eragin kaltegarriarekin ere bat egin du Ekologistak Martxan taldeak. Hain zuzen ere, herrian dauden hiru harrobiak ixtea eskatu dute. Horrez gain, Garaia egitasmoaren kontra egin dute, baita Olandixoko tunelaren kontra ere. Eta Gesalibarko eta Garagartzako arteko lotunea berriro ere aztertzea eskatu dute, besteak beste.

Eta San Andres parrokiak eskatu du aurrez ikusteko San Viator Txiki inguruan parrokia handitzeko aukera.

Edozelan ere, artikulu hau idaztean batzarra egin barik zegoen; hortaz, ez dago jakiterik zertan geratu den. Baina alegazioren bat onartuz gero, litekeena da Egitamu Orokorrari ere aldaketak egitea. Eta aldaketa horiek funtsezkoak badira, berriro jendaurrean ipiniko dute Egitamua.

LABUR

Datorren hilabetean, pare bat aldiz etorriko dira Arrasatera Nortasun Agiriak egitera

Apirilean, pare bat aldiz etorriko dira Arrasatera Nortasun Agiriak egitera. Halaxe jakinarazi digu Udaltzaingoak. Horrek esan gura du Udaltzaingoan ere bi bider emango dutela txanda Nortasun Agiriak egiteko. Hain zuzen ere, apirilaren 8an, astelehenean, apirilaren 11rako (eguna) zenbakiak emango dituzte. Eta gero, apirilaren 30ean (martitzena), berriro etorriko dira Arrasatera. Edozelan ere, oraindik ez dago zehaztuta egun horretarako txandak noiz emango dituzten.

Bestalde, oraingo eguaztenean, martxoaren 20an, txanda hartu zutenek datorren martitzenean, hilaren 26an, egingo dituzte Nortasun Agiriak.

Pila zaharrak batzeko edukiontzia lekuz aldatuko ditu Mankomunitateak

Datorren astetik aurrera, erosten ditugun denda berberetan utzi ahal izango ditugu pila zaharrak, gero birziklatzeko. Izan ere, Deba-goieneko Mankomunitateak pilak batzeko edukiontzia ipiniko ditu dendetan.

Kontua da orain arte oso esperientzia txarra izan dutela kaleko edukiontziekin. Gehienak apurtuta daude eta askotan pilak lurrean egoten dira. Eta horren ondorioz, batetik ez da birziklatzen, eta bestetik, kutsadura sortzen dute pilek. Hori dela eta, Mankomunitatea pilak saltzen dituzten saltokiekin jarri zen harremanetan eta, datorren astetik aurrera, ibarreko ehun bat dendatan ipiniko dituzte pilendako edukiontzia.



Zaborra batzeko egutegia aldatu egin dute

Joan den domekatik aurrera, eta edukiontzia berrien eraginez, zaborra batzeko egutegia aldatu egin dute Arrasaten. Orain arte astelehenean, eguaztenean eta egubakoitzetan batzen zen lekuetan, domekatik aurrera, martitzenetan, eguaztenean eta domeketan batuko dute. Bereziki erdigunean, San Andresen, Erguinen eta Garagartzan izango du eragina aldaketak.

ASESORIA ARRASATE

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxe: 943 79 73 00

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

ELKARRIZKETA

JOSE MARI ARGINZONIZ/PEDIATRA

“Hango osasunean eragin handiagooa dute garbitasun neurri sinpleek”

ARRASATE IRRATIA

Jose Mari Arginzoniz Sahararik itzuli berri da. Arrasaten bizi den mediku horrek hamabost egun eman ditu Afrikako iparraldean, hango sendagileei eta bestelakoiei laguntzen. Datorren urtean errepikatu egingo duela esan du.

Zertara joan zara Saharara?


Aspalditik proiektu bat abian dago Saharan, hango kanpalekuetako zerbitzu medikuei laguntzeko helburuarekin. Lau lagun izan gara, pertsona nagusien mediku bat, pediatra bi eta erizain bat.

Kanpalekuetan 180.000 lagun bizi dira. Hainbat kopurutako taldetan antolatuta daude, eta gu 30.000 lagun bizi diren leku baten izan gara. Han, aspalditik, badao ospitale txiki bat; horrez gain, herritarrek bospasei mila pertsonako auzoetan daude banatuta eta horietan ere osasun langileak dituzte. Hortaz, ez gara joan hango medikuendako laguntza ematera bakarrik; mediku, erizain... Guztiendako da laguntza.

Hortaz, zuek dakizuenak kontatu duzue han?

Horretan ahalegindu gara. Gauza nahiko sinpleak batzuetan gogoratu behar izaten dira, eta, adibidez, garbitasunari buruzko neurriak gogorarazi dizkiegu. Sarritan hango osasunean eragin handiagooa dute garbitasunarekin lotutako neurri sinple hauek medikuntzako gauza sofistika-tuek baino.

Horrez gain, osasun langileekin ere lan egin dugu eguneroko kontsultan, haiengandik ikasten, eta guk eurei erakusten.



ARGAZKILARIA

Zelakoa izan da harremana?

Esan beharra dago esperientzia hau orain dela sei-zazpi urte dagoela abian, eta hango jende askok ezagutzen du hemendik hara joaten den jendea. Baina, horrekin batera, aipatu beharra dago hango pertsonalean ere aldatetak izaten direla. Izan ere, mediku, erizain eta bestelakoak boluntarioak dira, musu truk egiten

dute lan, eta askotan, berriro gozenez, pertsonak aldatuta daude, eta berriei berriro ere guztia esplikatuz behar zaie.

Zelakoak dira umeak?

Oso salauak eta politikak. Horrez gain, hemengoan antzekoak. Gai-xotasunak ere hemengoan antzekoak dituzte, hori bai, asma handia dago, desnutrizioa baita gai-xotasun infekziosoak ere.

Kalealdeko eskailera eta San Andresko bidegorria onartu dituzte

Jaieguna izan direla-eta oraingo asteko Gobernu Batzordea eguaztenera atzeratu zuten arren, lan eta proiektu handiak izan zituzten berba-garbi batzordekideek. Behin betiko onospena eman zioten Kalealdea eta Gernika Oinezkoen Zumardia lotzeko egin gura duten eskaileraren proiektuari. Hain justu, 51.596,19 euroko (zortzi milioi eta erdi pezeta pasatxo) aurrekontua onartu zuten eskailera egiteko. Orain, proiektu hori zeinek egin erabaki beharko du Udalak eta hori, prozedura negoziatuz adjudikatuko du. Kultura etxea ere hizpide izan zuen Gobernu batzordeak, baina gai hori oso

ko bilkuran lantzeko egokiagoa zela-eta, atzoko batzarrerako utzi zuten.

BIDEGORRIA

Horrez gain, San Andres auzoan egin gura duten bidegorriarekin ere aurrerapausoa eman zuen Gobernu batzordeak. Proiektu hori onartuta zegoen lehendik eta lehiaketa publikora ateratzeko hurrengo pausoa eman zuen: Klausula Administratibo Partikularren orria onartzea, hain justu.

Hortaz, orain, proiektu hori lehiaketara aterako dute, eta Udaleko Hirigintza batzordeak espe-

ro du apirilaren amaiera aldera ko lan horiek egiteko enpresen proposamenak jasota izatea. Gero, aurkeztutako enpresen artean lanok zeinek egingo dituen erabaki beharko dute eta gero hasiko dira egiten. 117.325,48 euroko inbertsioa (ia 20 milioi pezeta) aurrez ikusi dute bidegorria egiteko. Fagor San Andresen hasi eta Meca eta Ford Mugarriraino iritsiko da San Andresko bidegorria; pabilioi horien atzeko aldetik pasatuko da bidea eta 460 metro luze izango da. Gero, Fagor Garagartzan egin behar dituzten lanak egitean, jarraipena emango diote bidegorriari. Asmoa da herria zeharkatzea.

LABUR

Mondragon Unibertsitateak hitzarmena sinatu du Pernambucoko Unibertsitatearekin

Mondragon Unibertsitateak eta Brasilgo Pernambucoko unibertsitateak hitzarmen bat sinatu dute. Hain zuzen ere, hitzarmenaren helburua da Internet bitartez ikasteko ikasgaiak sortzea eta garatzea. Hitzarmena hiru urterakoa izango da eta ikasteko materiala sortzeaz gain, irakasleak, ikasleak eta ikertzaileak elkarrekin trukatzeko ere aurrez ikusi dute. Hitzarmen horren arabera unibertsitate biek batera eta koordinatuta zabaldu ahal izango dute distantziak egiteko heziketa. Horrekin batera, dituzten bestelako helburu nagusiak dira Mondragon Unibertsitateari lotutako dagoen Ihardun Multimedialeko egindako ikasteko materiala Brasilgo hezkuntzara egokitzea. Horrez gain, lankidetzan egingo duten irakasleendako lizentziatura bat, Komunikazio Teknologian masterra eta lanerako hezleendako Pedagogia ikastaro berezi bat ere aurrez ikusi dituzte, besteak beste.

Garagartzako biribila egitea onartu zuen Gobernu batzordeak

Behin-behineko onospena eman dio Udalak Garagartzarako sarreran egin gura duten biribilaren proiektuari. Berez, Aramaiora doan bidea eta Garagartzara sartzen den bidearen artean sortutako bidegurutzaren funtzionamendua hobetzea da biribil horren helburua.

Biribil hori egiteko lanen kostua Fagorrek ordainduko du, baina egin, lanak Udalak egingo ditu. Orain, proiektua jendaurrean ipiniko dute herritarren alegazioak jasotzeko. Eta horrez gain, lanongatik kaltetuak gertatzen diren lurjabeen gutun baten bitartez jakinaraziko diete guztia.


Horrez gain, eta Garagartzara auzotik aldentu barik, auzora sartzeko errepide zatia Udalarari eman gura dio Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrekin batera, 60.101,21 euro (hamar bat milioi pezeta) emango dizkio errepidea ganoraz urbanizatzen. Arrasateko Udalak, berriz, adierazi du errepide zati hori urbanizatzen gutxienez, 150.000 euro behar dituztela (ia hogeita bost milioi pezeta) eta, hain zuzen ere, diru hori eskatu dio Aldundiari.

**Apirilaren 8a arte, bidea aldatuta**

Musakola kalean egiten ari diren biribilaren lanak direla-eta, eguaztenez hasi eta datorren apirilaren 8a arte, ibilgailuendako itxita izango da hango bide zati bat. Horrela, IFAMeko etxebizitzak egiten ari diren parean, ibilgailuak hango lantegien atzeko aldetik sartu beharko dira (A20 izeneko industria gunetik) eta Musakolako gasolina zerbitzugunearen parean, berriro ere lehengo bidera irten. Era berean, desbideraketa horren ondorioz, industrialdean dauden aparkaleku batzuk ere kendu egin behar izan dituzte. /UBANE MADERA

MARTITZEN ARRATSALDEAN, URA BARRA-BARRA

Domeka arratsaldean, Garagartza baino apur bat lehenago dagoen autoak garbitzeko gunean izan zirenek ezuste ederra izan zuten. Hodi bat apurru egin zen, eta ura behar den lekutik irten beharrean, beste leku batzuetatik irteten hasi zen. Eguazten goizean joan ginen argazkia ateratzera, baina ordurako hodi berriak zeuden; norbaitek izan zuen lana eguazten goizean. Martitzenean, bero egin zuen, baina aukeran...



TOKI ARGIKO TXAPELDUNAK

Toki Argiko zaharren etxean egin berri dituzten mahai-jokoetako txapeldunak dira argazkikoak. Txapelketa horretan musean, tutean, briskan eta kuatrolan egin dute parte hartzaileek, eta zein baino

zein abilagoak direla erakutsi dute. Ezkerraldean, zutik dagoena, J. Manuel Uriarte da, presidentea, eta hari egokitu zitzaion txapeldun guztiei zegozkien sariak banatzea. Horrelako lanak gustura egiten dira.



'OPERACIÓN TRIUNFO' SAIORA

Espainiako telebistari begira egon gara gutako asko azkenaldian; izan ere, *Operación Triunfo* saioak sekulako arrakasta izan du. Jakin izan dugunez, hurrengo aldirako hainbat mondragoetar animatu dira, baina Silvia Lorenzo bakarrik ausartu da gugana etortzen. Arrasate Irratiko lankideek elkarrizketa egin zioten 18 urteko gazteari, eta zelan ez, zuzenean abestu ere egin zuen. Esan beharra dago ez zuela batere txarto egin.



MENDIAN 'KASKURRIO'-REKIN TOPO EGIN ZUTEN

Argazkian azaltzen diren gazteak Izarraitzera irteera egin zuten. Txango hori Multikirolak programak antolatua zuten, eta mendian gora eta behera zebiltzala, norekin topo egin eta *Goenkale* telebista saioko *Kaskurrio*-rekin.

Kaskurrio-ren benetako izena lñaki da, eta gazteek harekin berba egin eta gero, argazki bat ateratzeko aprobetxatu zuten. Badirudi lñakik ere aspaldi utzi ziola ezezagun izateari; gazte arrasatear hauek, behinik behin, berehala ezagutu zuten hura.



Mondra futbol taldeko hamaikakoa, Zumaiakoren aurka jokatu aurretik.

OXEL EROSTARBE

FUTBOLA

Mondrak 0-1 galdu zuen Zumaiako taldearen kontra Atxabalpen

Emaiza horrekin, etxeko futbol taldeak amesteari utzi dio, liderra 11 puntura dago-eta

XABIER URZELAI

Mondrak eta Zumaiakok ez zuten partidu ona jokatu domeka arratsaldean. Talde biak puntu beharrean zeuden, eta Arrasateko taldea hobeto ari zenean, Zumaiakok partiduko gol bakarra egin zuen. Oraingo asteburuan, Elgoibar taldea izango da Atxabalpen.

Goiko postuetan dauden taldeak harrapatzea ez zen lan batere erraza, baina etxeko taldeak zerman boladarekin edozer gerta zitekeela zirudien. Azken bi jar-

dunaldietan, ordea, Mondrak ez du neurria eman, eta arrasatearrak esku-hutsik geratu dira bi partiduetan. Orain, ilusioa eta asmo onak ilundu egin dira, goiko taldeak urrun daudelako sailkapenean, urrunegi.

LEHEN ZATIAN, EZER GUTXI

Zumaiako bigarren postuan dago, baina domekan Atxabalpen jokatutako partiduan zumaiarrek ez zuten gauza handirik erakutsi. Partidu osoan, goleko jokaldian izan ezik, ez zuten aukera garbirik izan, eta bazirudien defendatza irten zirela zelaira.

Partidu aurretik egin zuen euri zaparradak futbol zelaia ederto ureztatu zuen, eta belarra bustita egonda, bazirudien joko azkarra izango zela. Hala izan zen. Joko azkarra, baina kontrol bakoa. Lehen zatia 0-0 amaitu zen, eta bigarrenetan, minutuek aurrera egin ahala, etxekoek ezusteren bat eman zezaketela zirudien. Ezustea, ordea, Zumaiakok eman zuen, gola egin zuenean.

Bihar, zapatua, Elgoibar taldea izango da Atxabalpen, baina Arrasateko futbol taldearendako ezer gutxi dago jokoan dagoeneko. Goialdean amaitzea, akaso.

Kenci Arrasatek gutxiagatik galdu zuen Getxoren aurka

XABIER URZELAI

Joan den asteburuan, Arrasateko saskibalo taldeak AXA Getxo taldearen kontra neurtu zituen indarrak. Partidu parekatua izan zen, eta arrasatearrek izan zuten aukerarik partidua eskuratzeko. Hala ere, bizkaitarrak nagusitu ziren: 90-82.

Joan den zapatuko partidua gura baino beranduago jokatu zen, arratsaldeko zortzietan. Hala ere, ordutegi berezi horrek ez zuen traba handirik jarri, arrasatearrek maila polita erakutsi zuten-eta norgehiagokan.

Hasiera batetik argi zegoen zeingehiagoka gogorra izango zela, AXA Getxo taldea EBA mailara igotzeko aukerak ditu-eta. Hala ere, Kenci Arrasateko jokalariek bazekiten partidua irabazteko aukerak zituztela; izan ere, Iturripen jokatutako partiduan etxeko taldeak gutxiagatik

galdu zuen eta, bestetik, azkenaldian arrasatearrak fin dabil-tza.

Partidu hasiera oso parekatua izan zen, eta lehenengo laurdenan arrasatearrak izan ziren aurretik. Bigarren laurdena ere gogorra eta parekatua izan zen, emaitza lekuko: 40-38. Hirugarren laurdenaren hasieran arrasatearrek aurre hartu zuten, baina gutxi iraun zuen. Segidan, bizkaitarrek erreakzionatu eta 11 puntuko aldea eskuratu zuten.

Laugarren laurdenan arrasatearrak markagailuko aldea murrizten ahalegindu ziren. Mondragoekoek gutxiagatik ez zuten berdinketa lortu, baina bizkaitarrek berriro ere gora egin eta aldea handitu egin zuten: 90-82.

Oraingo asteburuan, Kenci Arrasatek Iturripen jokatuko du. Aurkaria Beasaingo BKL CAF taldea izango da, eta etxekoek azken boladak jarraitzen badu, partidua parekatua izango da ikusgai.

FOTOKIROLA



Zikloturistak errepidean domeka honetan

Arrasateko Debagoiena Zikloturista Taldeak oraingo asteburuan ere ez dute atsedetik hartuko. Joan den domekan, 48 kilometroko ibilbidea egin zuten arrasatearrek. Legazpiraino joan ziren. Oraingo asteburuko txangoa apur bat luzeagoa izango da: 60 kilometroko ibilbidea egingo dute. Irteera ordua ere aurreratu egin dute; hala, bederatzi eta erdian irteera dute. Oraingoan, ordea, Araba aldera joko dute Arrasateko zikloturistek, Landara eta Ozaetara, hain zuzen ere. /X.U.

AUKEAk kirol instalazioen zozketa egingo du martxoaren 26an

XABIER URZELAI

Arrasateko kirol instalazioak erabiltzerako orduan, hainbat aukera daude: batetik, jokatu beharreko momentuan instalazioetara hurreratu eta momentuan bertan alokatzeko aukera dago. Hala ere, badago beste aukera

bat; izan ere, AUKEA Kirol Zerbitzuak aldiro-aldi kirol instalazioen zozketa egiten du. Eta horrela, erabili gura den kirol instalazioa hainbat hilabetetarako aloka daiteke.

Hain justu ere, datorren martxoaren 26an, AUKEA Kirol Zerbitzuak Uarkapeko, Musakolako

eta Iturrieko kirol instalazioetako pilotaleku, futbol, tenis, eta squasheko kantxen zozketa egingo du. Kirol instalazioen bat aldi baterako alokatu gura duenak datorren martitzenean Musakolako kiroldegian izango den batzarrean joan beharko du. Batzarra arratsaldeko seietan izango da.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

ELKARRIZKETA

JON ANDER ELORTZA/ DEBAGOIENA ZIKLOTURISTA TALDEKO DIRUZAINA

"Txirrindularia errespetatzeko, beharrezkoa da kontzientziarioa"

XABIER URZELAI

Arrasateko Debagoiena zikloturista taldeak martxoaren hasieran hasi zuen denboraldia. Domekero, Arrasateko hainbat txirrindulari elkartzen dira Euskal Herriko errepideetan barrena ibiltzeko. Horietako bat da Jon Ander Elortza, baina beste arduratu bat ere badu: taldeko diruak zaintzea, diruzaina da-eta.

Taldeko diruzaina bai, baina zikloturista ere bai, ala?

Bai, bai. Diruzain lanak egiten ditut, baina horrez gain, bizikletan ibili, kirol apur bat egin eta inguruko herriak ikustea ere atsegin dut; hortaz, neu ere zikloturista naiz.

Errepideetan ziklistok seguru sentitzen zarete?


Egia esan, ez. Eta inguru hauetan are gutxiago, gainera. Gipuzkoako errepideak ez daude bate-re ondo, zuloz beteta daude. Gu, jeneralean, bazterbidetik joaten gara, baina askotan txarto egoten direnez edo bazterbiderik izaten ez denez, errepidera sartu behar izaten gara. Auto-gidariak ez dute horrelako arazorik izaten. Eurek errepidera sartzen garelako bakarrik ikusten dute.

Zirkulazio Lege berriak gehiago babesten ei zaituzte.

Hala dirudi. Orain, behintzat, Zirkulazio Lege berriak beharrezkoak ziren eskubide batzuk legeztatu ditu. Edozelan ere, nik, behintzat, argi daukat txirrindularia errespetatzeko kontzientziarioa beharrezkoa dela. Horrela, txirrindularien eta auto-gidarien arteko harremana hobea izango litzateke, eta hori oso garrantzitsua dela esango nuke.

Hemendik aurrera, taldean ibiltzeko eskubidea izango duzue.

Bai, orain arte taldean ibiltzen ginenean auto-gidari asko haserretu egiten ziren. Orain, ordea, taldean ibiltzeko eskubidea daukagu, eta hori guretzako askoz ere



XABIER URZELAI

"Errepideetan ziklistok ez gara seguru sentitzen, eta inguru hauetan are gutxiago, gainera"

seguruagoa da. Txirrindulari bat aurreratzea ez da batera kostatzen, eta horregatik, askotan ez dira hartzen beharrezko neurriak. Txirrindulari bat aurreraterakoan errespetatu behar den metro eta erdia gutxitan errespetatzen dute gidariak

Tropelean, ordea, gauzak dezente aldatzen dira.

Bai, tropelean ibiltzea askoz

"Taldekako joatea seguruagoa da, auto-gidariak arreta handiagoa jartzen dute-eta"

ere seguruagoa da. Azken baten, txirrindulari talde bat aurreratzea automobil bat aurreratzea bezala izaten da, eta hori ez da beti erraza izaten. Auto-gidariak kontu handiagoa izaten du tropel bat ikusten duenean, eta arreta handiagoa jartzen du. Horregatik guztiagatik, Zirkulazio Lege berriarekin gauzak hobera egingo dutela uste dut.

SASKIBALOA

Kenci Arrasateko junior mailako nesken taldeak 42-38 irabazi zion Ordiziari

Arrasateko saskibaloia taldeko neskek Ordiziaren kontra jokatu zuten zapatu arratsaldean Majoriko kiroldegian, eta arrasatearrak partidua irabazita bueltatu ziren.

Zeingeziagok oso parekatua izan zen, baina arrasatearrek ondo eutsi zioten partiduari, eta junior mailako neskek, gutxitik izan bazen ere, partidua irabazi egin zuten: 38-42.

FUTBOLA

Bigarren mailako gazteek 0-2 galdu zuten Amaraberri taldearen kontra

David Zaitegiren mutilek ez zuten zorte handirik izan zapatuan jokaturako partiduan. Aurkariak, Amaraberri taldeak, lehenengo minutuan egin zuen 0-1eko, eta arrasatearrek ezin izan zuten lehen zati osoan partidua berdindu. Epaileak Amara taldeko jokalaririk bi egotzi egin zituen, baina Arrasateko mutilak ezin izan ziren gailendu. Bigarren zatian Amaraberri huts eta bikoa egin zuen, eta hortxe amaitu zen partidua. Oraingo asteburuan, etxekoek Mariñoren aurka neurtuko dituzte indarrak.

FOTOKIROLA



Nesken Mondrak 3-1 galdu zuen Mutrikun

Arrasateko nesken futbol taldeak igoera faseko lehen partidua jokatu zuten Mutrikun. Aurkaria ez zen nolana hikoia; izan ere, asteburu bat lehenago ere mutrikuarren kontra jokatu zuten, eta orduan, arrasatearrek galdu egin zuten. Joan den asteko partiduan ere Mutriku nagusitu zen, baina partidua bestelakoa izan zen. Lehenengo zatia banakoarekin amaitu zen, baina arrasatearrek hobeto jokatu zuten. Bigarren zatiko azken hogeita bost minutuetan, ordea, etxeko taldeak beheregin zuen, eta mutrikuarren beste bi gol egin zituzten. /X.U.



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Egur aroztegia


Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak



ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8. Tel.: 943 77 20 78
Asteleheneetik egubakoitzera:
10:00-13:00 eta 16:30-20:00

Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez

Oinaren azterketak: tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.
Umeak: hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.

Materia bigunen erabilera: oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.
CAD/CAM sistema: Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).
Neurrira eginiko oinetakoak.
AEBetatik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

Basauriko Duatloian Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra nagusitu zen

XABIER URZELAI

Zuhaitz Ezpeleta arrasatearra lehena izan zen Basauriko Duatloian helmuga gurutzatzen. Horrela, atleta bedoñarrak argi erakutsi du aste bat lehenago Intxaurrendon eskuratutako bigarren postua ez zela kasualitatea izan. Jon Aperribai ere lan polita egin zuen. Hirugarren izan zen Jon.

Argi dago Arrasateko atletak aurtan ere zeresana emango dutela; izan ere, denboraldia orain gutxi hasi da, eta mondragoetarrak azpimarratzeko moduko lana egingen ari dira dagoeneko. Intxaurrendoko proban Zuhaitz Ezpeleta bigarren postuan helmugaratu zen, eta joan den astean, Basaurin, hura izan zen azkarrena.

Atleta arrasatearrak 1:12:23ko denbora behar izan zuen proba betetzeko, eta azken metroetan egindako esprintari esker nagusitu zen. Bigarrena hiru segundora iritsi zen helmugara. Zuhaitz Ezpeleta ez da denboraldi hasiera ona egin duen mondragoetar bakarra. Jon Aperribai zazpigarren heldu zen helmugara Intxaurrendoko Duatloian, eta Basaurin hirugarren izan zen



ARTXIBOA

Aurtan, Debagoieneko Triatloia ekainaren 8an jokatu da.

(1:12:48). Hortaz, argi dago bi arrasatear horiek aurtengo denboraldian ere Euskadi mailan goiko postuetan izango direla.

TALDEKA ERE, ONENAK

Aurtan, triatloi talde berria dago ibarrean; izan ere, Arrasate Triatloi Taldea desagertu egin da Debagoieneko talde bat sortzeko. Joan den urtean, Bergaran triatloi talde bat eratu zuten, eta aurtan, bi taldeak elkartu egin

dira. Horrela sortu da Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldea, eta besteak beste, Leintz-Gatzagako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Bergarako 39 atletak osatzen dute talde berri hori.

Intxaurrendoko eta Basauriko duatloietan, taldekako sailkapenean, Antxintxika Debagoiena taldea izan da onena. Oraingo asteburuan Oñatin jokatu den duatloian egingo dute taldearen aurkezpen ofiziala.

FOTOKIROLA



Arrasate Errugbi Taldeak goiko postuetan amaituko du denboraldia

Joan den zapatuan, denboraldiko partidu ikusgarrienetako bat jokatu zuten Arrasate eta Eibar taldeek. Ordura arte hirugarren eta laugarren postuan zeuden taldeek ikuskizun ederra eskaini zuten, eta azken unera arte jendea urduri izan zen. Partidu osoan bi taldeak parekatuta egon ziren markagailuan. Inork ez zuen nagusitasun argirik erakutsi, eta berdintasuna izan zen nagusi. Epailak partidua bederatzi minutu luzatu zuen. Azken minutuetan, Arrasateko jarraitzaileen atsekaberako, Zumbeltzen jaurtiketa bat zutoinera joan zen. Partidua halaxe amaituko zela zirudienean, Igor Erañaren jokaldi eder bati esker, Markel Elortzak, Garagartzan bildutako jarraitzaileen gozamenerako, entsegua egin zuen, eta 21-18 nagusitu zen Arrasateko taldea. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Iriztu Taberna - Koka Junior Basati	1-2
Bikain Akademia - Bin Laden	1-4
Goma2 - AC Surcos	3-6
Usoz Potroak - Etxerat	2-4

B MULTZOA

Azkena You Know - Aurrera Bolie	16-3
Iratu STS - Rayo Aldeano	6-4
AT Celaya - Betraye	4-5
I.K.P. - Chapime Dribling	2-7

PARTIDUAK

MARTXOAK 23, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: KJ Basati - AC Surcos. Antolakuntza
12:00: AT Celaya - I.K.P. Antolakuntza
13:00: Bikain Akad - Etxerat. Antolakuntza
15:50: Iratu STS - Chap. Dribling. Antolakuntza
17:00: Bin Laden - Iriztu Tab. Antolakuntza
18:00: Goma2 - Usoz Potroak. Antolakuntza

MARTXOAK 24, DOMEKA

11:50: Azkena YK - Rayo Aldeano. Antolaku
13:00: Aurrera Bolie - Betraye. Antolakuntza

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. AC Surcos	2	1
2. Bin Laden	2	1
3. Etxerat	2	1
4. Koka Junior Basati	2	1
5. Goma2	0	1
6. Usoz Potroak	0	1
7. Iriztu Taberna	0	1
8. Bikain Akademia	0	1

B MULTZOA

	P	J
1. Azkena You Know	2	1
2. Chapime Dribling	2	1
3. Iratu STS	2	1
4. Betraye	2	1
5. AT Celaya	0	1
6. Rayo Aldeano	0	1
7. Aurrera Bolie	0	1
8. I.K.P.	0	1

ORAINGO ASTEBURUAN, BERRIRO LANERA

BIGARREN FASEKO BIGARREN JARDUNALDIA JOKOAN

Joan den asteburuan San Jose eguna zela-eta zubia izan zen, eta antolatzaileek taldeei atsedean ematea erabaki zuten. Oraingo asteburuan, berriz, igoera faseko bigarren jardunaldia jokatu da, eta askotan partidu interesgarriak aipatzen baditugu ere, oraingoan ia ezinezkoa da, denak dira-eta interesgarriak. Ikusi egin beharko da oraingo asteburuan ere ezusterik badagoen.

HAINBAT TALDE GURA BAINO JOKALARI GUTXIAGOREKIN

Txapelketa aurrera doan neurrian, hainbat arrazoirengatik, zenbait talde geroago eta jokalaririk gutxiagorekin daude. Aurreko urteetan antolatzaileek onartu izan dute jokalaririk berrien bat taldean sartzea. Aurtan ere, seguru izango dela horrelako eskaerarik.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Elgoibar Erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpe.
Mondra - ST Lizeoa Ohor gazt. Zapatuan. 11:00. Atxabalpe.
Mariño B - Arrasate 2.gazt. Zapatuan. 17:15. Irun.
Lengokoak - Arrasate Ohor Kadete. Zapatua. 10:45. Herrera.
R. Sociedad - Arrasate Infant. Zapatua. 11:00. Zubietza.
Mondra - Dunboa Neskak. Domeka. 11:00. Atxabalpe.

SASKIBALDIA

Kenci Arrasate - BKL CAF Seniorkak. Zapatuan. 18:00. Iturripe.
Kenci Arrasate - Loiola B 23 urte azp. Zapatuan. 16:00. Musakola.
Kenci Arrasate - Etxadi Easo Junior mut. Zapatuan. 16:00. Musakola.
Kenci Arrasate - Goierri KE Junior neska. Zapatuan. 10:00. Musakola.
Kenci Arrasate - Ordiza KE Kadete. Zapatuan. 12:00. Musakola.

ERRUGBIA

Arratiko Txekorrak - Arrasate Seniorkak. Zapatuan. 16:00. Arratia.
--

EMAITZAK

ERRUGBIA

Seniorkak: Arrasate - Eibar. 21-18
--

SASKIBALDIA

Seniorkak: AXA Getxo - Kenci Arrasate. . . 90-82
Jun.mut: Kenci Arrasate - Iruariki Fideo. . . 27-78
Jun.nesk: Ordizia - Kenci Arrasate. 38-42
Kad.mut: Etxadi Easo - Kenci Arrasate. . . 59-75

FUTBOLA

Erregionala: Mondra - Zumaia. 0-1
Ohor gazt: Aldapetarrak - Mondra. 4-3
2. gazt: Arrasate - Amara Berri. 0-2
Ohor Infantil: Arrasate - Zarautz. 0-2
Neskak: Mutriku - Arrasate. 3-1




Oraindik ez du GOIENASPORT ikusi.

Bailarako kirola astero begi bistan.

GOIENASPORT

- Astelehenetan, 20:30ean
- Errepikapena martitzenetan, 14:30ean
- Aurkezlea: **Julen Iriondo**





GAZTELUPEKO HOTSAK

Onddo osatzen duten taldekide beratarrek eskarmentu handiko musikariak dira.

JOSEBA IRAZOKI/ONDDO MUSIKA TALDEKO GITARRISTA ETA ABESLARIA

Diskoan baino rock kutsu handiagoa dute gure abestiek zuzenean

IKER BARANDIARAN

Berako Onddo taldeak kontzertua eskainiko du gaur Jai Zale tabernan, 22:30ean, Kultur Errotaren barruan. Onddo taldekideek *Errepideak ez ditut maite* diskoa aurkeztuko dute. Pop eta rock estiloak uztartzen dituzte.

Zelan sortu zen Onddo taldea?

Joseba: 2000. urtean, nik neuk gitarrarekin eta ahotsarekin zintan grabatuta neuzkan kantu batzuk hartu, eta ordenagailuarekin moldatzen hasi nintzen. Maketa bat prestatu, eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxekeo Xarrarekin harremanetan jarri nintzen. Hark interesa zuela-eta, taldekide bila hasi nintzen.

Beran erraz aurkituko zenituen eskarmentu handiko musikariak, ezta?

Bai, berehala osatu nuen taldea: Pettirekin eta Xabier Montoiarekin jotzen duen Iñigo Telletxea, Triki Ta Kerekin eta Jabier Muguruzarekin jotzen duen Igor Telletxea eta Borrokan taldearekin ari den Ibai Gogortza, hain zuzen ere. Aspaldiko lagunak.

Onddo zuzeneko taldea izatea gura zenuen edo hasiera baten kantuek grabatzea besterik ez zenuen gura?

Hasiera-hasieratik argi nuen Onddo zuzeneko taldea izango zela. Ez neukan diskoa bakarrik

“Argi nuen Onddo zuzeneko taldea izango zela. Zuzenean jotzea atsegin dugu”

“Abesti batzuek beste ñabardura batzuk dituzten arren, azken baten, popa egiten dugu”

ateratzeko asmorik. Gutxienez lana aurkezteko hamar bat emanaldi egin nahi nituen. Diskoa atera baino lehenago, lauzpabost kontzertu eman genituen, eta gerora, hamabost bat emanaldi egin ditugu dagoeneko. Zuzenean jotzea atsegin dugu.

Zelakoa izan zen diskoaren grabazioa?

Hasieran, oso presaka ibili ginen. Gaztelupeko Hotsak diskoetxekeok baietza eman bezain laster, taldearekin entsegu pare bat egin eta grabatza sartu ginen. 2000. urteko abenduan, bizpahiru egunean, baxua eta bate-

ria grabatu genituen, baina atzerapen batzuen erruz, udazkena arte ez ginen estudioara bueltatu. Hortaz, zatika grabatu dugu. Hasieran, presaka eta gero, lasai-lasai. Bestela, oso ondo. Gure lagun Maikerekin grabatu genuen Berako Aduanan, eta udan bukatu genuen.

Zuen musika pop bezala definitzen duzu? Ala hori baino gehiago da?

Bai, ados nago. Argi eta garbi, popa egiten dugu. Abestien egituraketa “ahapaldi-lelo-ahapaldi” da. Konponketetan ñabardura gehiago daude eta abesti batzuek rock kutsu handiago dute, baina azken baten, popa da. Disko lasaia egin nahi nuen.

Diskoaren izenburua, *Errepideak ez ditut maite*, errebindikazio ekologista da?

Neurri baten bai. Kantu baten izena da eta azaleko argazkiarekin bat doa. Errepide larregi egiten dituztela uste dugu, eta abesti hori animalia baten ikuspegitik idatzi dugu.

Zertaz egiten dute berba zuzen abestiek?

Batez ere, jendearen arteko harremanez: tirabirez, une onez, paranoiez, eta abar. Horrez gain, amodio gazi-gozeoz, gaueko giroaz, neskez...

Zelakoak dira zuzeneko emanaldiak?

Zuzenean, diskoan, baino gitarrara gogorragoak eta rock kutsu handiagoa antzematen da.

KULTURAPILULAK

Mugarriz Mugarri, Garagartzako inguruak bisitatuko dituzte domeka goizean

AEDk eta Arrasate Kirol Proiektuak, lankidetzan, Mugarriz Mugarri antolatu dute aurten ere. Etzi, domeka, Garagartzako kobazuloak, baserriak eta inguruneak ikustera joango dira. Hitzordua Arrasaten egin dute, Arbolapetan, goizeko bederatzita eta erdie-tan. Jakina, interesa duen edonori egin diote gonbidapena. Eguerdirako bueltan egongo direla jakinarazi diete interesatuei.

Konpas eta Kaxa Flamenkoko Ikastaroa egingo dute apirilean eta maiatzean

Iñaki Bruñak eta Udaleko Gazte Sailak beste perkusio ikastaro bat prestatzen dihardute. Apirilaren 15ean, 22an eta 29an eta maiatzaren 6an eta 13an, Angel López irakasleak Konpas eta Kaxa Flamenko Ikastaroa emango du, 18:00etatik 20:30era. Matrikula hogueita bat euro izango da eta Gazte Bulegoan egin daiteke.



ARTIBOIA

Oskorri taldekideek jarraitzaile ugari dituzte gure artean.

Oskorrikoek 'Vizcayatik Bizkaiara' eskainiko dute

LEIRE KORTABARRIA/IKER BARANDIARAN

Oskorri talde entzutetsuak *Vizcayatik Bizkaiara* ikuskizun berezia eskainiko du bihar Amaia Udal Antzokian, 22:30ean. Antzinako bertsoak musikatzeaz gain, antzerkia ere izango da ikusgai.

Vizcayatik Bizkaiara deritzon diskoa iazko Durangoko Liburu eta Disko Azokarako prestatu zuten Oskorriko taldekideek. Grabazioan Kepa Junkeraren eta Michel Bordeleauxen laguntza izan zuten. Horrekin batera, Eliseo Parrak koprodukzio lanetan lagundu zien.

Oskorri taldeko Natxo de Felipen esanetan, duela hiru bat urte, Xabier Amurizak Bizkaiko bertso zaharrak berreskuratzekeo erronka proposatu zien, eta azkenean, egin dute.

XIX. MENDEKO BERTSOAK

Vizcayatik Bizkaiara diskoan hamabost abesti batu dituzte, gutxiak ere XIX. mendekoak, eta Xabier Amurizaren beraren laguntza izan dute. Lan handia egin eta jende nagusiari galdetuta, kasu askotan bertso bakoitzari

zegokion doinua lortu dute. Beste batzuetan, ordea, musika eurek sortu eta jarri behar izan diote. Natxo de Felipen esanetan, bertso horietako askok kritika soziala eta politikoa egiten zuten, tonu zorrotzean eta umoretsuan, gainera.

IKUSTEKO ETA ENTZUTEKO SAIOA

Oskorri taldeko partaideek esan digute bizkaieraz kantatuko dituztela antzinako bertso horiek: “Istorioren zuzenak, arinak, alaiak eta, askotan, sinestezinak dira. Ziur gozatuko dituzuela”.

Horrez gain, ikuskizun horretan entzungo ditugun kantuek xarma berezia daukatela adierazi digute Oskorrikoek, baina era berean, ikustekoak ere pisu handia izango du.

Bestalde, *Vizcayatik Bizkaiara* ikuskizunean taldekideek eta hiru aktorek antzezle lanak egingo dituzte, eta iragarri digute hegazkinak, itsasontziak eta bestelako ezuste batzuk ere ez direla falta izango.

Natxo de Felipek azaldu digu *Vizcayatik Bizkaiara* ikuskizunean XIX. mendeko Euskal Herriko erretratua erakutsi nahi digutela, eta ziur lortuko dutela.

E, TXO!

GUREGAIK/ ASTE-SARIA, GAZTEEN ETA GURASOEN BURUKO MINA

Aste-saria: gurasoen eta gazteen arteko tirabira amaigabea

IKER BARANDIARAN

Gaztetxoak garenean eta buruaski izan artean, ekonomiki gurasoen mende egoten gara. Horren ondorioz, eta beste gauza askoren artean, gurasoekin paga negoziatu beharrean egoten gara.

Aste-sari moduan gaztetxoei zenbat diru eman erabakitzea eta adostea betidanik izan da borroka edo buruhaustea. Gurasoen ustetan, asko ematen dute, eta gaztetxoendako, gutxiegi edo oso justua da jasotzen dutena. Gazte askok azpimarratzen dute mendekotasuna gogorra dela, baina bitartean, gurasoekin kopurua negoziatzen dute, baita aste barruan estraren bat eskatu ere.

Lan estrak egin edo aiton-amonei eta anai-arrebei dirua eskatzen diete batzuek

GASTU GEHIEN, ASTEBURUETAN

Batzuek hilero aste-saria jaso, eta hilabetean barrena banatu egiten dute. Kasu askotan, amarekin konpontzen dira, baina salbuespenak egon badaude, eta dienez, diru premian daudenean, batari edo besteari eskatzen diote, baita aiton-amonei edo anai-



XABIER URZELAI

Euroaren biribiltzearen ondorioz, aste-sari handiagoa jasotzen dute batzuek.

arrebei ere. Euroak biribiltzeak egin direla-eta, euroekin despistatuta daudela. Gastu gehiena asteburuetan egiten dute.

LOTSABARIK/ Mainer Donnay

“Oso jenio txarra daukadala uste dut”

IKER BARANDIARAN

Mainer ikas-bidaian dago orain, baina kanpora joan aurretik, gurekin izan zen Lotsabarik atalean. Lagunekin egotea oso gustuko du eta seguruenik lagun asko eraman ditu berarekin ikas-bidaiara.

• **Txikitan, zer izan gura zuenuen?**

Mediku eta ile apaintzaile. Txikitan, amari ilea konpontzen ibiltzen nintzen. Eta mediku, aitek horretan lan egiten duela. Baina orain, Eskoriatzan Humanitate Enpresaritza egin gura nuke.

• **Zelan ikusten duzu zeure**

burua hemendik 20 urtera?

Ezkonduta edo, gutxienez, mutil-lagunarekin eta umeekin. Hori bai, lanpostu ona eduki gura nuke, eta Donostian bizi izatea ez legoke gaizki.

• **Zein da, zure ustez, adin ideala?**

Orain daukadana. Ikasketek buruhausteak ematen dizkirate, baina bestela ondo bizi naiz.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Lagunei, eurak ondoan izatea oso garrantzitsua da-eta.

• **Zerk arduratzen zaitu gehien?**

Gauza askok. Une honetan, ikasketek, batez ere.

• **Zerk ematen dizu lotsa?**

Jendearen aurrean txarto gelditzeak.

• **Zure bertute bat? Eta alde txarren bat?**

Jendea ulertzeko abilezia daukat, baina bestalde, oso jenio txarra daukat.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Begiak, handiak direlako.

• **Arrasaten ligatzen da?**

Nire adinekoek, behintzat, oso gutxi ligatzen dute. Gaitza da, oso itxiak eta lotsatiak garelako. Ea apur bat geroago, nagusi egiten garenean...

• **Jendeari zeri botatzen diozu begirada lehenengo?**

Aurpegiari, bizkarrari eta besoei.



ADINA: 17 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoa (II.a) • **ZALETASUNAK:** Kalera irtetea eta lagunekin egotea • **LIBURU BAT:** ‘Como ser una mujer y no morir en el intento’ • **FILM BAT:** ‘Báilame el agua’ • **MUSIKA TALDEA:** Denetarik entzuten dut • **KIROL TALDEA:** Reala




MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943-79 76 58
ARRASATE



KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BEHEKODENDATIK

Maribel Hernández

VENTANAS SAN MIGUEL DENDAKUE

XABIER URZELAI

Maribel eibartarra da, baiñe hogeita bat urte daroie Mondraguen bizi izeten. Mondraguetarrok hotzak gitzelakuen etorri zan, baiñe ezuste edarra hartu ei euen. Ventanas San Miguel enpresan 1996xen hasi zan lanien. Bost urte ibilli da tekniko komertzial moduen, eta oin, dendian kargu dago Maribel.



Amets bat?

Adierazpen eta eritzi askatasune danondako.

Eta amets txar bat?

Gaur egungo egoerie.

Egin dozun azken biajie?

Toledora, oktubrien.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei.

Eta gorrixerik?

Jeneralien, danoi.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

El hijo de la novia / Malena es un nombre de tango / Rosana.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai (Seguru esaten dau).

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Diskotekak gurago.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Herriko jentie. Hamengo herritarrak irekixak eta oso jatorrak die. Oso gustora nago hamen.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Danenganako errespetue bul-tzaketan ahalegindduko nitzake, bai bizitzeko moduen eta bai pensetako moduen.

Mendi bat?

Anboto. Ez neuke igoko, baiñe mitologixa aldetik oso interesantie da. Eta oso politte, gaiñera.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Lucas Alberdi.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

“Jentiek leihuen gainien informaziño gutxi eukitten dau, eta etxe danak ez die bardiñak”

Paulo Coelho.
Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Horrenbeste dagoz! George Clooney-kin, adibidez.

Bizi izetera hiri batera jutekotan, nora?

Toledora. Hiri horrek hunkittute itxi nindduen.

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Pasapalabra / Clásicos populares.

Jentiek leihuak jarterakuen badaki ze gure dauen?

Jeneralien, ez. Gehixenek presupuestuek bakarrik eskaketan daue, eta askotan ez duskue ixten aholkulari lana egitten.

“Askok presupuestue bakarrik eskaketan daue, eta ez duskue ixten aholkulari lana egitten”

Gaur egun, lapurrak sartzen die leihuetatik?

Erreztasune eta denporie euki ezkerro, bai.

Kaleko zaratarik ez entzutie eskaketan dau jentiek gehixen-bat?

Erdigunien bizi dienek, bai; taberna inguruetan zarata haundixe egoten da-eta.

Hortaz, botilloia-ren arazue konponketako, leiho on bat?

Seguru, eta Ventanas San Miguelekue bada, hobeto.

Eta bizilagun begiluze bat euki ezkerro?

Horretarako kortiñak dagoz. Kristal illunek intimidadie emuten daue, baiñe argixe kendu be bai.


NIREBIDAIAHURA/ Belen Aranbarri

Salvador de Bahia (Brasil) / 2001eko abuztuan

Belen bi bider izan da Brasilen dagoeneko, baina mutil-lagunak, Igor Otadui, ez zuen Brasil ezagutzen. Hori dela eta, Belenek argi esan zion hango guztiz ezberdina dela, eta beste pentsamolde batekin joateko gomendatu zion, bestela ez zuela disfrutatuko. Eta badirudi Igorri ez zitzaiola askorik kostatu “txip” aldaketa hori egitea, bikain pasatu zuten-eta. Belenek familiartekoak ditu Salvador de Bahian, eta haraxe joan ziren zuzen-zuzenean. Brasilen hilabete egin zuten. Egungehienak hirian bertan igaro zituzten, baina barrualdera joateko aukerarik ez zuten galdu.

Belenen esanetan, kontrabandista bezala joan ziren Brasilerara: “Janaria besterik ez genuen eraman. Hemengo produktuak han erostea ia ezinezkoa da, eta guk poltsakada ederrak eraman genituen hangoendako”. Salvador de Bahian bitan dago banatuta: Hiri Garaia eta Hiri Beherea. Goiko aldean eskualde aberatsa dago eta beheko aldean, pobrea. Eskualde pobrea ere hainbat bereizketa egin daitezke: fadelen eta palafiten eskualdeak, hain zuzen. Azken horiek urgainean dauden txabolak dira. Belenen familia Brasilerara bizi izatera joan zenean, beheko eskualdean bizi izan zen, baina orain, goiko aldean bizi dira.

Hango bizimoduak harrituta utzi zuen Arrasateko bikotea, nahiz eta Belenek ezagutzen zuen Salvador de Bahia. Lapurreta asko izaten dira, baita bahiketa asko ere. Horregatik, hiriaren goiko aldean bizi diren umeak ez ziren etxe azpiko parketik irteten. Hango jendea lasaia ei da, lasaiegia. Osabak bere enpresa txikian astero ordaintzen die langileei, hil hasieran dena ordainduz gero, berehala gatzaten dute-eta. Datorren astean, Brasilgo barruko aldeara egin zuten txangoaren berri izango duzue.



“Brasilerara janari mordoan eraman genuen”

“Hiria oso ikusgarria da, baina baita arriskutsua ere”

XABIER URZELAI




Salvador de Bahiako eskualde biak: Hiri Garaia eta Hiri Beherea.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Toilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Adinekoen eskubideen eta bizi-kalitatearen aldeko manifestua egin berri du Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak.

Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak kanpaina berezia jarri du abian

IKER BARANDIARAN

Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak kanpaina bat bultzatzen dihardu, hirugarren adinekoek dituzten arazoekin kontzientzia gaitzen. Kanpaina horren bitartez, Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak atera berri duen manifestua aditzera eman gura dute. Era berean, ekimenaren aldeko sinadurak batzeko, hainbat mahai jarriko dituzte Gipuzkoan.

Gizabanakoaren babesa lortzeko ahalegin hori egiteaz gainera, udalei ere dei egin diete, manifestu horren puntuekin bat egin eta, era berean, manifestua sina dezaten. Gero, apirilean, manifestua bera eta batzen dituzten sinadura guztiak Madrilen aurkeztuko dituzte.

INFORMAZIO ETA SINADURA MAHAIK

Ekimen hori aurrera ateratzeko, Gipuzkoako hogeita bi herritan informazio mahaiak jarriko dituzte egunotan. Arrasaten gaur bertan (egubakoitza) jarriko dute informazio mahaiak. Ezin izan

dugu jakin zehazki non jarriko duten informazio mahaiak. Edozelan ere, seguruenik, alde zaharrenean ipiniko dute, eta erraz aurkitu ahal izango duzue.

Era berean, Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak aditzera eman duenez, "gaur egungo gizartean gazteriarren balioak gailen-

Gaur, informazio mahaiak herrian

Gipuzkoako pertsona nagusien kontseiluak sortutako manifestua gipuzkoarrei hobeto azaltzeko eta ekimenaren beraren aldeko sinadurak eta atxikimenduak batzeko asmoz, mahai informatiboak jarri dituzte hainbat herritan egunotan.

Arrasaten gaur bertan (egubakoitza) jarriko dute, baina ezin izan dugu jakin non.

tzeko joera argia dago eta, horren ondorioz, gazte ez direnak baztertu egiten dira".

Manifestu horretan azpimarratu dituzten puntu nagusienak honako hauek dira: adina dela eta, inor ez baztertea; edozein gizakik gizartean parte hartzeko ahalmen osoa izatea; eta belaualdien arteko laguntza eta babesa, hain zuzen ere.

Bestalde, hirugarren adinekoen eskubideak bultzatzen ari den ekimen garrantzitsu horrek hainbat arlotan eragin gura du, hala nola, hezkuntzan, familian eta lan esparruan.

Ekimen horren bitartez, besteak beste, duintasunaren eskubidea, parte hartzea eta norberaren errealizazioa aldarrikatu dituzte. Hori lortzeko, hezkuntzan belaualdien arteko laguntza bultzatu gura dute, enpresetako heziketa programetan nagusiei aukerak emañ gura dizkiete, lantokietañ pausoka erretiratu ahal izateko aukera ahalbideratu gura dute, eta, azkenik, komunikabideek eta familiek nagusiak hobeto hartzea gura dute.

LABUR

1940ko kintoen emakumezkoen batzordeak bazkaria egingo du apirilaren 20an

Arrasateko 1940ko kintoen emakumezkoen batzordeak urteroko bilkura egin gura du apirilaren 20an. Bilkuran parte hartzeko interesa dute guztiak apirilaren 13a baino lehen eman beharko dute izena Aldabe tabernan (Batzokia), eta hamabost euro ordaindu. Apirilaren 20an bertan, 13:00etan, meza izango dute San Juan Bataiatzailearen elizan, eta 14:00etan, bazkaria, Aldabe tabernan.

Uribarriko zahar egoitzan batzar nagusia egin, eta ardurak berriro banatu dituzte

Duela pare bat aste Uribarriko zahar egoitzan egindako batzar nagusian, egoitza bereko ardurak berriro banatu zituzten. Urtean egoitzako presidente izan den Xabier Salaberriren ordean, Manuel Uribe hartu du haren kargua; presidenteordea Mari Luz Izurrategi izango da; idazkaria, Alfonso Otadui; eta diruzaina, berriz, Jose Angel Gutiérrez. Zorionak, aurrekoei eta berriei!

ZAHARREN AHOTIK

Felipe Zabala


DANTZA ASKO EGINDAKO ERRETIRATUA

Felipe Aramaioko Azkoaga auzoan jaio zen, 1923an. Gero, Mondragoera etorri zen lan egitera, eta arrasate-artu egin zaigu dagoeneko.

Txikitari eta gaztetan bihurria zinen?

Aramaion jaio nintzen, Azkoaga auzoko Garaikoa baserrian, hain justu. Eta sei urterekin auzoko eskolan hasi nintzen. Egia esan, ez nintzen askorik joaten, ganadua zaintzen denbora luzeagoa igarotzen nuen eta. Gogoan daukat neskekin sartu gintuztela eskolan, eta hori ikusita, ez nuela joan gura, lotsatuta. Gero, soldadutzara joan nintzen. Hogeita bederatzi hilabete egin nituen, lehenengo Burgosen eta gero Tolosan. Tolosan, askoz hobeto. Bitxikeria gisa, Tolosan, zaintzak egiten, ardo zahatoa gordeta izaten genuen. **Gero, lanean hasi zinen?**

Azkoagako eskolan, gauez, zatiketak egiten ikasi nuen. Gero, 1948an, Cerrajeratik deitu zidaten, baina ez nintzen joan, San Sebastian eguna zelako. Gura izanez gero, berriro



deitzea zeukaten, eta horrela egin ere bai. Zamalanetan hasi nintzen Cerrajeran, baina Roneokoek Cerrajerara baserritar indartsuen bila jo, eta haiekin joan nintzen. Egune-ro, Aramaiotik Roneoraino oinez jaisten nintzen, batzuetan, elurra gerriraino neukala. Gero, osabaren etxean apopilo izan nintzen.

Eta noiz ezkondu zinen? Ez neukan presa handirik. 37 urterekin ezkondu nintzen, Sara Corcuera gasteiztarrarekin. Etxea eskuratu arte zain egon ginen. Bitartean, dantza piloa egin nuen; denetarik, baita tangoak ere.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



LANDALUZE HARATEGIA URDATEGIA

ESPEZIALITATEA: ETXEO TRIPAKIAK

ITURRIOTZ KALEA.7 TEL. 943 79 14 86

ARRASATE




ARRASATE
Ainhoa Errasti
Martxoaren 23an, 8 urte.
Zorionak! Etxekoak.




ARRASATE
Aitor Kortazar
Martxoaren 17an, 30 urte.
Zorionak! Bixentaren partetik.



ARRASATE
Uxue Ezpeleta
Martxoaren 11n, 3 urte.
Zorionak! Ama-puntakoaren partetik.



ARRASATE
Garikoitz Agiriano
Martxoaren 23an, 30 urte.
Zorionak, etxeko partetik.




ARRASATE
Haritz Gantxegi
Martxoaren 24an, 24 urte.
Zorionak, satelite! T.M.T.



ARRASATE
Maider Leturia
Martxoaren 22an, 29 urte.
Zorionak, potxola! Zure lagunak.



ARRASATE
Danel Arrizabalaga
Martxoaren 20an, 10 urte.
Zorionak, etxeko partetik.



ARRASATE
Andoni Iñurritegi
Martxoaren 19an, 17 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARAMAIO
Josune Garaitonandia
Martxoaren 25ean, 24 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Asier Egidazu
Martxoaren 22an, 25 urte.
Zorionak, Egi! T.M.T.



ARRASATE
Ana Garzia
Martxoaren 24an, 4 urte.
Zorionak! Maite zaitugunok.




ARAMAIO
Felisa Abarrategi
Martxoaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Maria Bergaretxe
Martxoaren 23an, urtebetetzea. Zorionak! Anai-arrebak eta zure loba.





ARETXABAETA
Iratxe Bengoa
Martxoaren 17an, 28 urte.
Zorionak! Zure lankideak.



ARRASATE
Xabier Urzelai
Martxoaren 13an, 23 urte.
Zorionak! Zure lankideak.

Adi!

Hurrengo zenbakian, **martxoaren 23tik apirilaren 5era** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu, ARRASATE PRESSko egoitzan.**



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76




**Parques
y Jardines**

Casa-Torre kalea.
ABADIÑO (Bizkaia)
Tel.: 94 681 90 82

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



weru[®]
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko martxoaren 22a / 20. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Herriko nagusiek apirilaren amaiera arte izango dute oporrak eskatzeko

UBANE MADERA

Penintsula, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak edo Portugal izango dituzte aukeran adinekoek oporretara joateko, baita kultura zirkuituak eta natura turismoa ere. Edozelan ere, lekua aukeratu eta eskaerak egiteko epea apirilaren 30ean bukatuko da.

Urtero moduan, IMSERSOk adinekoendako oporren egitaraua atera berri du. Hain justu ere, datorren urterako da orain atera duten opor egitaraua, hau da, 2002-2003rako egitaraua da.

Bost adineko mota joan ahal dira oporretan IMSERSOren eskaintza horrekin: 65 urte edo gehiago dituzten adinekoak; pentsioen sistema publikoko erretiro-pentsioa hartzen dutenak; 60 urte bete dituzten pentsiodunak, betiere, pentsioen sistema publikoaren barrukoak bada; eta pertsona nagusia elbarria bada, haren semea edo alaba lagun moduan joatea onartuko dute, baldin eta pertsona nagusiaren elbarritasun maila %45 edo gehiago bada. Eta horrez gain, pertsona nagusiarekin doan laguna ezkontidea bada, ez ditu zertan bete adi-



ARTXIBOA

Apirilaren lehenengo astetik aurrera hartu ahal izango dira inprimakiak Udalean.

naren, pentsioaren eta hiritartasunaren baldintzak.

INPRIMAKIAK, 25ETIK AURRERA

Bestalde, herriko Udaletik adierazi digutenez, eskaerak egiteko inprimakiak martxoaren 25ean

helduko dira Aramaiora. Hortaz, apirilaren lehenengo astetik aurrera hartu ahal izango dira Udalean inprimakiok.

Gero, irailean, eskaera egin duenak gutun bat jasoko du etxeko postontzian. Eta horren ondo-

ren, bidaia agentzia baten aukeratu beharko du nora joan eta noiz.

Dena dela, informazio gehiago gura duenak Udaleko Gizarte Zerbitzura jo dezake, eguaztentean, 12:00etatik 14:00etara.


ATREBENTZIAEZPADA/ Aramaion etxebizitza gehiago behar dira? Zeinendako?




NAROA BIDEBURU
Ikaslea



ELENA ZUBIZARRETA
Langilea



MIGEL ANGEL BURGI
Langilea



CALISTO RUIZ DE AZUA
Langilea



BENJAMIN ARRIOLABENGOA
Langilea

Baietz uste dut. Bai kanpokoendako baita herrikoendako ere. Uste dut batzuetan jende asko etortzen dela kanpotik, eta beharko dutela.

Kanpoko jendeak hartu du etxe asko. Hemengoak joan ez daitezen behar dira, baina beldur apur bat ere ematen du kanpokoak uholdeka etortzeak.

Bai. Eta uste dut hemen beste 500 bat lagun gehiago baleude, herriarendako bizimodu hobea izango litzatekeela. Giro hobea egongo litzateke.

Etxebizitza gehiago behar dira, baina gehiegi ere ez, ingurukoendako baka-riek. Aramaion bizi direnendako eta haien familiendako, bereziki.

Beharra badago, eta etxebizitza gehiago egonez gero, normala izango litzateke lehenengo hemengoendako izatea eta gero kanpokoendako.

LABUR

Bihar, organo kontzertua San Martin elizan

Bihar, zapatua, Jose Santos de la Iglesia Ugarte organo jotzaile gasteiztarrak kontzertua emango du San Martin elizan, 20:30ean. Corrette, Travers, Buttstedt, Peraza, Andreu, Storace, Galuppi eta Lucchesi musikarien obrak entzuteko aukera izango da.

Jose Santos de la Iglesia Ugartek Madrilgo Errege Kontserbatorioan egin zituen organo ikasketak. Espainiako organo jaialdi askotan hartu du parte, baita Espainiatik kanpo ere: Italian, eta Frantzia, esate baterako.

Dirulaguntza eskaerak nagusi osoko bilkuran

Eguaztentean, martxoko osoko bilkura egin zuen Aramaioko udalbatzarrak. Dirulaguntza eskaerak izan ziren nagusi bilkuran; izan ere, bate-tik, Ibargoiako lokaletarako, Erretiratuen Egunerako eta Gizarte Zentroko pertsianetarako behar du dirua Udalak. Eta diru hori Arabako Foru Aldundiari eskatzea proposatu zuten. Dirulaguntzekin segituz, Pilota Elkarteari eta Guraso Elkarteari eman beharreko laguntzak ere aztertu zituzten. Eta horrez gain, udal-txean agertutako pintadak ere izan ziren hizpide.

Areto futboleko mutilak garaile, baina neskak ez

Joan den asteburuan, kadete mailako mutilek 14-2 irabazi zieten Calasanz ikastetxekei. Bañera taldeko neskak, bestalde, ez ziren fin ibili eta 3-24 galdu zuten Baro-Caloren kontra. Horrela, bai baitak zein besteak bukatu dute aurtengo Liga txapelketako lehenengo aldia. Aste Santuko oporren ondoren, apirilaren 13an, hain justu ere, hasiko dute bigarren aldia.

HERRIKOKONTUAK

SANTA CRUZ APAIZARENA (I)

1872ko abuztuan, Santa Cruz apaiz karlista atxilotu egin zuten. Soldaduek zein atxilotuak Aramaion pasatu zuten gaua. Apaiza fusilatzeke beste kargu bazi-tuen Primo de Riverak, eta hori ospatzeko, jai batera gonbidatu zituen lagunak. Jai Aramaion egin behar zuten.

Bitartean, atxilotua udal-txeko bigarren solairuan zegoen. Haren zainketa bikoiztu egin zuten, ihesik egin ez zezan. Baina Santa Cruzek horixe zuen buruan. Burukomin handia zuen plantak egin zituen, eta janaria eramaten zion emakumeari esan zion oka egiteko zerbait emateko. Horrela, Santa Cruz apaizak lortu zuen zaindariak balkoira ateratzen uztea. Ateraldian zapi bat lotu zuen balkoiaren barandian. Geroago, berriro atera zen eta zapiari blusa bat lotu zion. Gaueko hamaikak ziren, eta berriro ere irteten zenean, balkoitik salto egin zuen Santa Cruz apaizak, lehen lotutako blusari helduta, hain justu ere.

'Aramaioko ibarraren iragana eta oraina' (J.M. Elejalde)



KULTURA

Aurreikuspenak bete zituzten Barandiaran aita-semeek Paleta Txapelketan

Joan den zapatuan bukatu zen aurtengo Paleta Txapelketa. Zaleek egindako aurreikuspenei kasu eginez, gainera, Barandiaran aita-semeak gailendu dira txapelketan. Haiek jantzi dute txapela. Bigarren lekuan, berriz, Ojanguren eta Garaitak osatutako bikotea geratu zen; hirugarren lekuan Armendarizek eta Orobengoak osatutakoa eta, azkenik, laugarren lekuan, Azurmendi eta Arriolabengoa.

Txapelketaren azken txanpa giro ezin hobean jokatu zutela adierazi digute antolatzaileek. Gainera, sariak banatu eta gero, hamarretakoa egin zuten aurtengo txapelketan parte hartu dutenek. Antolatzaileek adierazi digutenez, datorren urtean Paleta Txapelketa berriro ere antolatzeko asmoa dute.

BOTEPRONTOAN/ Luis Elexpuru · Matxain kaleko alkatea

“Oso kale berezia da Matxain: erdia kale modukoa da eta beste erdia baserriz beteta dago”

Kale inguruan geratuko gara oraingo honetan, Matxainen, hain zuzen ere. Han bizi da herriko emakume zaharrena: Isidra. Bestalde, erreka ondoan egonda, urtean behin amuarrain arrantza egiten dute umeendako Matxainen. Eta auzo alkatea duen kale bakarrenetarikoa da. Horregatik, berezia ere bada. Luis Elexpuru alkateak esan digunez, erdi kale erdi baserri-auzo da Matxain, eta oso ondo bizi ei dira kale berezi horretan:

Zelatan du alkatea kale horrek? Lehendik datorren gauza bat da. Lehen, kalean ere bazen alkatea. Horrez gain, kale berezia da Matxain: erdia kale modukoa da eta beste erdia baserriz beteta dago. Eta

tokatzen denean, baserrietako ganaduak eta kontatzen ibiltzen gara alkateok. Uste dut horregatik dugula alkatea, baserriak daudelako, alegia.

Baserriren bat lekutan ei dago...

Cuatrocientos esaten diogu. Gipuzkoaren eta Arabaren arteko muga-muga dago, tontor baten. Han hasten da Matxain kalea, eta herriko plazaraino doa. Goi aldera, berriz, Mendiolaraino heltzen da. Lur aldetik handia da, bai. **Mendiola aipatu duzu. Zelan konpontzen zarete haiekin?** Ondo. Guk ez dugu haiekin inolako arazorik.

Berriro izango zara alkate? Irteten bada izan behar, baina ez dut gura.



Zenbat lagun zarete auzoan?

Berrogeita hamar bat. Zortzi edo bederatzi baserri daude, eta bakarra bizi da baserrietik. Besteok ardi batzuk, behi batzuk ditugu... baina gutxi.

Gehienok erretiratuta gaude... Zer eskatuko zenioke Udalari? Bidea konpontzea. Sarri eskatu dugu, baina esaten digute ez dagoela dirurik. Beharra dago. Antzina, Aramaioko errepide nagusia zen, gurdiendako. Estua da, paretak jausten...

Eta zubia?

Bihur dago, oker. Lehen ere, konpondu izan dugu. Batzuek esaten dute berria egin behar dela, beste batzuek zaharra konpondu behar dela. Nik berria eskatuko nuke, orain dagoenetan; urak gainzka egin izan du-eta.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuia Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

TAMAINA HANDIKO ZABORRAK

Hileko azkeneko barikuan batzen diren arren, martxoan atzeratu egingo da tamaina handiko zaborrak batzeko eguna. Izan ere, martxoaren 29a, barikua, jaieguna da. Horrela, eguna aldatu egin dute, eta datorren apirilaren 3an, eguaztanean, batuko dituzte tamaina handiko zaborrak. Hortaz, bezperan, apirilaren 2an, ilunkeran atera beharko dira kalera.

IBILGAILUEN ZERGA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea apirilaren 5ean zabaldu eta maiatzaren 5ean itxiko dute. Vital Kutxan ordaindu behar da zerga. Edozelan ere, bankuz helbideraturik dauden ordainagiriak apirilaren 15ean kobratuko dituzte. Epealdi hori pasatu eta gero, ordaindu bako zergak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

ZINEA


Atlantis filma izango da ikusgai domekan, 17:00etatik aurrera, kultura etxean.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

PUB HAIZEA



“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

ERRETRATUZAHARRA

Tellamendiko gurutze berriak 25 urte

Tellamendiko edo Belamendiko gurutzea 1935ean ipini zuten lehenengo aldiz aramaioarrek; Lurgorri Mendi Taldeak, hain zuzen ere. Argazkian agertzen den gizonezko taldea ibili zen lan horretan, baina berez, gurutzea Aretxabaletan egin zuten.

Eta Belamendi mendian izan zen, 1977ko urtarrilaren 1era arte. Egun hartan, Guardia Zibilak, Zonako Tenientearen aginduz, Tellamendiko gurutzea bota egin zuen, lehergailuekin. Guardia Zibilaren aitzakia gurutzean ipinita zegoen Ikurrina izan zen. Haien esanetan, Ikurrinari itsatsita mina bat zegoen lurpean. Gero, Orixol Mendi Elkarteko bazkide batzuen esanetan, eurak ere han izan ziren goiz hartan, eta Ikurrina egon bazegoen, baina ez inolako minarik.

Gurutzea apurtzeak samin handia eragin zuen herritarren artean. Egunean bertan manifestazioa egin zuten Guardia Zibilaren kuartelera. Tabernak eta bestelakoak itxi egin zituzten dolua erakusteko. Eta herritarrek berehala esan zuten gurutzea



AGUR
Belamendiko gurutz deuna Aretxabaletan egin eta aramaioarrek jasotakua zabaldu egizu Ibar honetan gizarte pake eta zoriona
JEL / 1935eko irailaren 15ean. 821 goitasuna

berreskuratu egingo zutela. Handik gutxira, martxoaren 5ean, gurutzea berriro ere bere lekuan zegoen. Uztailaren 17an ospatu zuten aramaioarrek gurutzea berriro ipintzea. Besteak beste, Benito Nafarrate abadeak hartu zuen parte egun hartako mezetan, eta Sabin Salaberrik

gurutzearen abesti bat egin zuen. Gaur egun, honakoa ipintzen du gurutzean:

"Lurgorrik jaso ninduen lerkariak irauli berriz zutik nauzute esker herriari mendi tontor honetan guztien zaindari

gurutze honen birjaiotze data: 1977garreneko martxoak 5"

Argazkia: Mertxe Mondragón
Informazioa: Mertxe Mondragón
Urtea: 1935

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Erguin auzoko biribilunean, aldaketa gutxi

Duela berrogei urte, zirkulazioa bideratzeko, bidegurutzeak izaten ziren nagusi. 90eko hamarkadan, berriz, biribilak bilakatu ziren protagonista herrian, eta geroago eta semaforo gutxiago dago. Argazkiak ikusten baditugu, ordea, gauzak ez dira askorik aldatu, biribilak hortxe jarraitzen du-eta. Kontuan izan San Andresko hainbat etxe oraindik egiten ari zirela.



≈ 1960

Orain arte ateratako argazki zaharretan auto gutxi ikusten ziren, baina hemen dezente daude; ez, ordea, gaur egun beste.




2002

Gaur egun, biribil erdiko argiek hortxe jarraitzen dute oraindik ere, ondo dabilzan adierazgarri. Kurtzetxikin ere pinu gehiago dago orain.

**TOLDOS
LECE** C/B

Kataide Industrialdea, 14 Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto




Altzariak
Diseinua
Apainketa

**M
ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala



iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • **BAINU ERAKUSKETA** Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42



Jarri lasai eta musikaz gozatu.

Musikaz blai, SOINUZ BLAI.

SOINUZ BLAI

- Eguenetan, 21:00etan
- Errepikapena egubakoitzean, 21:00etan
- Aurkezleak: **Maidar Albes** eta **Ugutx Usandizaga**

